

ORDAINPEKOA DATORREN ASTETIK AURRERA

Martitzenean sartuko da indarrean Beasain eta Bergara
arteko A-636 autobidearen teleordainketa sistema / 6

"EZ ZAIT JUSTUA
IRUDITZEN, BIZITZAREN
GARESTITZEA
DAKARRELAKO"

JUNE ORTIZ DE LANDALUZE
BEASAINEN LAN EGITEN DUEN
IRAKASLE ARRASATEARRA



Deskarga eta Urretxu artean dagoen arku edo ataria, bidesaria ordaintzeko erabiliko dena. ENEKO AZKARATE



**Bi milioi euro
inbertituko ditu
Aretxabaletako
Udalak Santa Kurtz
kalea berritzeko** / 18

**Zubieta eta
Masterreka kaleak
urbanizatzeko lanak,
Bergarako aspaldiko
inportanteenak** / 24

**Udalbiltzaren
'Geuretik sortuak'
ekimenaren baitako
'Eresia' antzezlan
bihar Seminarixoa** / 38

SINADURAK

	RAMON UGALDE / 12
	PATXI OLABARRIA IRIZAR / 10
	ANDER ETXEBERRIA / 48

**Debagoieneko
industria sarea
berritzeko gune bat
eraikiko du MUK
Arrasaten, Urriben** / 14



Auto elektrikorako
bidea, erronka
enpresendako

Garbiñe Etxeberria
Realeko kirol
zuzendariarekin

MERKEALDIA

♦ 2. BETAURREKOAK OPARI



Kontsultatu optikan konpainiaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	630	1.208	7.271	%32,93	8.323
Bergara	589	893	4.495	%29,89	9.856
Oñati	308	654	3.874	%33,78	8.388
Aretxabaleta	213	358	2.066	%29,18	8.064
Eskoriatza	115	185	1.192	%29,05	7.311
Antzuola	68	152	720	%33,04	10.096
Elgeta	34	60	265	%23,43	8.311
Aramaio	29	85	456	%30,81	7.702
Gatzaga	11	3	50	%20,00	5.982
DEBAGOIENA	1.997	3.598	20.389	%31,46	8.633

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Bailarak lurraldeekiko duen aldea handitu egin da Gabon jaietan

Abenduaren 10ean gainditu zen bailaran 11.000 kasuen langa. Orduetik, hilabete bakar batean, beste 9.000 kasu berri erregistratu dira. Osasun Sailak emandako datuen arabera, pandemia hasi zenetik 20.389 positibo baieztatu dira eskualdean

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Urtarrilaren 6tik 12ra 1.997 positibo hauteman zituzten Debagoienean. Aste bakarrean inoiz atzeman den zenbateko handienetakoa da, baina horren gainetik dago aurreko astean –abenduaren 30etik urtarrilaren 5era bitartean– erregistratutakoa: 3.598 koronabirus kasu. Bi asteetan, herri handienetan atzeman dira kasu gehienak, baina bailarako herri guztietan banatu dira positibo berriak.

Eta aste batetik bestera 1.600 kasu gutxiago hauteman diren arren, intzidentzia-tasak goia jo zuen domekan: 100.000 biztanleko 9.000 kasuen langa gainditu zen Debagoienean. Nolanahi ere, intzidentzia kalkulatzeko azken hamalau egunak hartzen

dira kontuan, eta, hortaz, kasu gutxiago erregistratu direla kontuan hartuta, apaltzera egin du datuak. Eguaztenean 8.600eko tasa zuen eskualdeak.

Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan ere hasi dira dagoeneko intzidentzia-tasen lerroak okertzen. Araban eta Nafarroan, berriz, goranzko joera mantentzen da. Goiko mapan ikusten denez, Debagoiena horien gainetik dago oraindik.

Datuok interpretatzeko orduan, kontuan hartu behar da protokolo berria dela indarrean (Ikus 4. orria). Labur esanda, Osasun Sailak COVID-19 kasuak zenbaitzeko modua aldatu egin du, eta, ondorioz, zenbait adierazle mugatuagoak dira pandemiaren bilakaera aztertzeke.

ADINEKOEN EGOITZAK DEBAGOIENKO EGOITZETAN 96 KASU AKTIBO DAUDE

Eguazteneko datuaren arabera, 96 kasu positibo aktibo daude bailarako adinekoen egoitzetan; gehienak Arrasateko Iturbiden daude, eta ondoren, Oñatiko San Martinen, Bergarako Mizpirualden eta Eskoriatzako Jose Arana egoitzan.

Gipuzkoako balantzea eginda, urtea hasi denetik 124 egoiliarrek eman dute positibo. Datu esanguratsua da; izan ere, iazko urte osoan 27 kasu soilik erregistratu ziren. 2020an, bestalde, 263 positibo egon ziren, guztira, lurraldeko egoitzetan.

OSPITALEETAKO EGOERA PRESIOA ARINTZEN HASI DA BAILARAKO OSPITALEAN

Azken datuaren arabera, Debagoieneko Ospitalean hamabost lagun daude koronabirusaren eraginez ingresatuta. Erietxeko Zuzendaritzak azaldu du zenbatekoa behera egiten ari dela; izan ere, astearen hasieran hemezortzi lagun ziren ospitale-ratuta zeudenak.

TXERTAKETA KANPAINA 45ETIK GORAKOEK HARTU DEZAKETE ERREFORTZU DOSIA

EAEko herritarren %93,1ek bete dute txertaketa zikloa eta %91,9k hartu dute lehen ziztada. Bestetik, %48,9k hartu dute dagoeneko errefortzu dosia. Momentu honetan, Osakidetza 45 urtetik gorakoei ari da hirugarren dosi hori jartzeko hitzordua ematen.

PANDEMIAREN BILAKAERA 771 KASU POSITIBO ERREGISTRATU DIRA EGUN BAKARREAN

Pandemiari errepasoa eginda, 2020ko martxotik hona, sei olatuk astindu dute bailara; baina

aurrekoak ez dira gerturatu ere egin azken olatuko datuetara. 2020ko azaroan jo zuten goia datuek: egun bakarrean atzemandako positiboek 100eko langa gainditu zuten bi aldiz. Orduetik 2021eko abendura arte, muga horretatik behera egon dira kasuak, baina azken olatu honetan, 700 kasuen langa ere gainditu da: abenduaren 29an, hain zuzen ere; 771 kasu atzeman ziren Debagoienean.

2021ean, guztira, 11.540 positibo hauteman ditu Osakidetza bailaran; horien erdia baino gehiago (6.072) abenduan. 2020ko martxotik urte bukaerara arte, 4.566 kasu erregistratu ziren guztira, baina, egindako proba diagnostiko kopurua ez denez argitaratu, ezin da konparaketa zehatzik egin bi urteen artean. Eta heriotzak aztertuta, Debagoienean, 2021ean, urtarriletik urrira arte –Osasun Sailak datua emateari utzi baitzion data horretan– 52 lagun zendu ziren. 2020an, berriz, 123 izan ziren eskualdean erregistratutako heriotzak. Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Ministerioak emandako datuen arabera, 2.528 lagun hil dira azken urtean; 2020an baino 1.395 gutxiago. Hala, pandemia hasi zenetik eta datu ofizialen arabera, 6.451 lagun hil dira Hego Euskal Herrian, koronabirusaren eraginez.

Ametsak Biziz!

**MATRIKULA
EPEA!**

**URTARRILAREN
17tik 28ra**

SORTZAILEN • ANALITIKO - KRITIKOA • KOOPERATIBOA
HURBILEKOA ETA ENPATIKOA • EUSKALDUNA • BARRNE SONDATASUNA DUENA
ERAKUNTZAILEA



HAUR HEZKUNTZA



ATE IREKIAK

BASABEAZPI (2-6 URTE)	urtarrilak	14	ostirala	17:00	Aretxabaleta
JOSE ARANA *	urtarrilak	18	asteartea	17:30	Eskoriatza
UMEZAINZA *	urtarrilak	15	larunbata	11:00	Arrasate
SANTA TERESA (2-6 URTE)	urtarrilak	18	asteartea	17:30	Arrasate
OLARTE	urtarrilak	19 20	asteazkena osteguna	17:30 17:30	Arrasate
URIBARRI *	urtarrilak	20 26	osteguna asteazkena	17:30 17:30	Arrasate



**HARTU ZURE
TXANDA HEMEN!**



943 77 20 25 www.arizmendi.eus





KORONABIRUSA

Pandemiari erantzuteko moduak egokitu dituzte

Autodiagnostiko testak eskura izateak eta omikron aldaerak beste testuinguru batera eraman dute pandemia. Hala, Eusko Jaurlaritzak protokoloak eguneratzea erabaki du. Nolanahi ere, Osasun Sailburuak ez du uste oraindik gaitza "endemikoa" denik.



Herritarrek ilaran Arrasateko farmazia batean, autodiagnostiko testak erosteko. GOIENA

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

COVID-19aren pandemiaren aurrean jarduteko protokoloak moldatu ditu asteon Eusko Jaurlaritzak. Martitzenean egindako agerraldian azaldu zituzten aldaketak Osasun sailburu Gotzone Sagarduik eta Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek.

Sagarduik adierazi zuenez, "talde zaurgarrietako herritarren arreta hobetzea" da protokolo berriaren helburuetako bat, eta, horretarako, Osakidetza egingo dituen proba diagnostikoetan lehentasuna izango dute 70 urtetik gorako herritarrek, txertatu gabeez, haurdun daudenek, immunoeskasia dutenek eta gaixotasun kronikoak dituztenek. Herritar horiek proba egiteko euskadi.eus/nola-jokatzen-dut webgunean dauden formularioak bete ahal izango dituzte kontaktu estuak badira edota etxean egindako proba diagnostikoan positibo eman badute.

Egoera zaurgarrian ez dauden herritarrek ere Osakidetza proba egitea eskatu ahal izango dute gaixo-agiria edo laneko baja beharrez gero edota "sintoma larriak" igarritz gero. Gainerakoek -farmazian erositako proban positibo emanen badute ere- ez diote Osakidetza ezer jakinarazi beharko. Nolanahi ere, Osasun sailburuak argitu nahi izan du sintomak dituzten herritarrei "ez zaiela proba ofiziala egitea ukatuko".

Protokolo aldaketak "diagnostikoak azkartzea" eta "Lehen Arretako zein arakatzaile zerbitzuen karga arintzea" ekarriko duela uste du Osasun Sailak. Baina Sagarduik azpimarratu du herritarrek prebentzio-neurriak "zorroztu" beharko dituztela eta sintomei "erne" egon behar dela.

Gauzak horrela -kasu ofizial gutxiago erregistratuko direla

kontuan hartuta-, pandemiaren bilakaera neurtzeko erabili diren zenbait adierazle ez dute orain arteko pisu bera izango Osasun Sailarentzat; hori adierazi zuen sailburuak. Edozelan ere, Sagarduiren hitzetan, "ez da galduko pandemiaren bilakaera ikusteko aukerarik".

Hezkuntza ere aldaketak

Hezkuntza arloari dagokion protokoloa ere aldatu egin da. Orain, ikasle batek positibo ematen badu, sintomarik gabeko ikasleek eskolara joaten jarraitu beharko dute eta ez zaie proba diagnostikorik egingo. Sintomak dituztenek, berriz, etxean geratu beharko dute. Ikasgela ez da itxiko hiru gelakide edo gehiagok positibo eman arte. Halere, Jokin Bildarratzek jakinarazi du arakatzaileek eta osasun arloko profesionalak erabakiak "kasuan kasu" hartuko dituztela.

Pandemia ala endemia

Osasun adituen artean pil-pilean dagoen gaia da ea koronabirusa gaitz endemikotzat har daitezkeen jada. Catherine Smallwood Osasunaren Mundu Erakunde arduradunetako batek azaldu du gaitz endemikoek "nolabaitteko egonkortasuna" hartzen dutela birusaren zirkulazioan eta "aurreikusi" egin daitezkeela. Hori horrela, OMEk ez du uste COVID-19ak ezaugarri horiek betetzen dituenik oraindik; besteak beste, "ziurgabetasuna handia delako". Sagarduik ere iritzi bera erakutsi du asteon: "Denborak esango du ea etorkizunean pandemia hau endemia izango den edo ez". Espainiako Gobernuak, aldiz, koronabirusari gripe arrunt bati bezala aurre egiteko asmoa erakutsi du, osasun egoera "aldatu" egin dela argudiatuta.



"Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan bi ibilbide egiteko aukera dago, eta baita kanpoko herrialdeetan egonaldiak egiteko aukera ere"

Jone Markuleta Etxegoien (Oñati, 22 urte)
Ikus-entzunezko Komunikazioa graduoko hirugarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?
Derrigorrezko ikasketak amaitu nituenean, argi nuen komunikazioaren eta ikus-entzunezkoen esparrutik jo nahi nuela. Batxilergoa amaitutakoan, Andoaingo ZIBIES eskolara joan nintzen, ikus-entzunezkoen esparruan murgiltzera modu praktikoan. Bertan amaitu nituen, unibertsitateko gradua egin nahi nuela ohartu nintzen.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Banituen ezagunak Mondragon Unibertsitatean ikasten, eta ate irekietan zalantzak argitu nituen. Metodologiak harrapatu ninduen, egiteko eta ikasteko dagoen aukera

zabalak. Oñatikoa naiz, eta, campusa Aretxabaletan egonda, errazagoa da.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?
Oso positiboki. Gustuko dut ikasten dudana. Gure ikasturtean hasi ginenontzat, gainera, ez ziren errazak izan hasierako urteak. Lehen urtean, koronabirusaren ondorioz, elkar ezagutzeko espazioak moztu zizkiguten errotik. Bigarren urtetik aurrera, berriz, eskola presentzialean galdutakoa berreskuratzen hasi ginen.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Eraman erraza da. Taldeka funtzionatzen dugu eta eginez ikasteko sortuta

dago metodologia. Ikus-entzunezkoen graduan, ikus-entzunezkoak izan daitezkeen esparru zabala horretatik jasotako pilula txikiak ikasten ditugu.

Unibertsitatez zer gustatzen zaizu gehien?
Irakasleek gurekiko duten gertutasuna eta ematen diguten konfiantza. Gainera, batzuetan taldeka eta beste batzuetan banaka funtzionatzen dugunez, bakoitzak unibertsitateko esperientzia oso berea egiten du. Bi ibilbide egiteko aukera dago gaur egun, eta kanpoko herrialdeetan egonaldiak egiteko aukera.

Zeintzuk dira zure asmoak etorkizunerako?
Dual ereduari esker ikasketa eta enpresako egonaldia partekatzen nabil Arrasateko Emun enpresan, eta bertan ikasten jarraitu nahiko nuke.

**ARAMAIO
ANGIOZAR
ELGETA
ANTZUOLA**

INFORMAZIO
ZUZENA ESKOLAN
BERTAN

ESKORIATZA

LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Bisita gidatuak: Urtarrilak 17- 28
Hitzorduak: 943 89 91 94
eskola@luiszeiza.eus

ARETXABALETA

KURTZEBARRI ESKOLA

Bisita gidatuak: Urtarrilak 15
Hitzorduak: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus

KURTZEBARRI INSTITUTUA

Urtarrilak 19, 18:00
Arkupeko Zeraia aretoan

ARRASATE

HERRI ESKOLA

Bisita gidatuak: Urtarrilak 15
Musakola, Bedoñabe eta Erguinen.
Hitzorduak:
zuzendaria@arrasatehe.eus

INSTITUTUA

Institutuan: Urtarrilak 18, 18:00
Aramaion: Urtarrilak 19, 18:00

BERGARA

SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA

Bisita gidatuak urtarilean
Hitzordua: 943 76 21 47

IPINTZA INSTITUTUA

Ate irekiak: urtarrilak 18, 19 eta 20
18:00 eta 19:00

OÑATI

URGAIN ESKOLA

Urtarrilak 15
Hitzordua: 943 89 91 34
zuzendaritza@urgainerrekalde.eus

OÑATI INSTITUTUA

ZUAZOLAN: Urtarrilak 19
Ikasleak 17:00
Gurasoak 18:00

goieskola
debagaieneko euskal
eskola publikoa



GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

→ **MATRIKULAZIOA:**
URTARRILAREN
17TIK 28RA



Guztion eskola, guztion artean



Auto bat A-636 autobidean, Deskargan dagoen arkuaz zeharkatzeko bidean. XABI URTZELAI

Abiadura jaitsi gabe pasatzeko bidesaria 'Abiatu' sistemarekin

Asteartean jarriko da martxan Beasain eta Bergara arteko A-636 autobidea ordaintzeko 'free flow' sistema. Ohiko kabinen ordeztu arku batzuk zeharkatuko dituzte gidariek, eta ordainketak telematikoki egin. Hori nola egin informatzen ari dira orain

Hasier Larrea DEBAGOIENA
Deskargako mendateko errepidea saihesteko helburuarekin erai-ki zuten Bidegik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak A-636 errepide azkarra. 2019an ireki zuten, eta epe batean zehar bidesaririk ordaindu beharrik izango ez zela adierazi zuten Aldunditik; hala, epe hori iraungi egingo da hilaren 18, ordainketa sistema ezartzearekin bat.

Kontaktu fisikorik gabe
1991n Norvegiar estreinatutako teleordainketa sistema aukeratu du Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Sailak bidesaria kobratzeko. Hala, autobidearen zabalera alderik alde zehartzen duten hiru arku instalatu dituzte Beasainen, Ezkion eta Deskargan, eta arku-erdi bat Antzuolan, Urretxuko noranzkotik datozenendako. Beraz, ibilgailu

guztiekin, motozikletekin salbu, ordaindu beharko dute igaraldia. Kanonen prezioetan aldeak egongo dira ibilgailu motaren lehen eta bigarren mailako ibilgailu astunendako garestiagoa izango da eta ordainketa sistema motaren arabera; izan ere, hemendik aurrera, bi modu egongo dira ordainketa egiteko: TAG gailu bat eskuratuz edo ibilgailuko matrikula banku-txartel bati lotuz. Izapide horiek Bidegiren webgunean erregistratuta edo aurrez aurreko Ariztetako Bezeroaren Arreta Zerbitzuan egin daitezke.

Informazio kanpaina abian
Kanon arrunta baino merkeago ordaintzeko modu bakarra da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen TAG gailua, *Abiatu* sistema deritzona. Gipuzkoako bidesarierako des-

kontuak dakartza, A-636an barne (Ikus taula). Hilean gehienez 33,37 euroko gastua ahalbidetzen du probintziako autobideetan, eta 49,30 eurokoa Bizkaiko AP-8an eta Arabako AP-1ean. 2020an 102.000 gidarik zeukaten *Abiatu*, eta urritik aurrera 3.000 gehiagok hartu dute gailua, Aldunditik jakinarazi dutenez. Izan ere, *Abiatu* ez daukatenei informazioa helarazteko kanpaina jarri zuten martxan udazkenean, eta oraindik ere horretan dabilta: Bergaran, Ondartzako kontrol-zentroan, AP-1 errepidearen sarreran, egongo dira urtarilaren 19ko goizean, eta udaletxean, berriz, egun bereko arratsaldean. Antzuolan ere emango dute *Abiatu*-ren berri, udaletxean, hilaren 26an, goiz eta arratsaldean. Horri lotuta, Aintzane Oiarbide Aldundiko Bide Azpiegiturarako dipu-

"Ohiko gastuak gehituko zaizkigu"

JUNE ORTIZ DE LANDALUZE
IRAKASLEA

Arrasatetik Beasainera joaten da lanera aste barruan, Lasalle eskolara. **Zer iruditzen zaizu bidesaria ordaintzea?** Aurka nago, ez zait justua iruditzen, bizitzaren garestitzea dakarrelako. Langileok, normalean, ez dugu dietarik kobratzen autoan mugitzeagatik, eta nahiko gastu da erregaia erostea bakarrik; horren prezioa ere gorantz doa. Aurten iaz baino



JUNE O.D.L.

garestiagoa izango da lanera joatea. **Zer diozu *Abiatu*-ri buruz?** Lehendik ere baneukan eta eroso da, baina esango nuke jendea behartuta dagoela orain gailua eskuratzerako. **Nori egingo dio kalte, bereziki?** Kamioilariak. Gasteizko bidesariko prezioa ere igo dute; beraz, AP-1 eta N-1 artean mugitzen direnak nabarmen igarriko dute.

Tarte bakoitzaren kostua

IBILBIDEA	ABIATURIK GABE	ABIATUREKIN*		
		1-8 ibilbide %25	9-20 ibilbide %55	21 ibilbidetik aurrera %75
Beasain-Ormaiztegui	0,38 €	0,28	0,17	0,09
Ormaiztegui-Zumarraga	0,74	0,55	0,33	0,18
Legazpi/Urretxu-Bergara	1,41	1,06	0,63	0,35
Legazpi/Urretxu-Antzuola	0,48	0,36	0,22	0,12

* DESKONTU PROGRESIBOAK, GUTXIENEZ 6 JOAN-ETORRI HILEAN.

ITURRIA: BIDEGI

tatuak herritar oro animatu du *Abiatu* eskuratzerako, A-636an "%25etik %75erako beherapen progresiboak" lor daitezkeela argudiatuta, "hilean egindako joan-etorrien arabera". Arku bidezko ordainketa sistemak TAG gailurik ez duten edo matrikula banku-txartel bati lotuta ez daukaten ibilgailuak identifikatuko ditu, eta jarraian Bidegik dagokion izapideak jarraituko ditu ibilgailuen titularrak kanona ordaintzeko, 3 euroko kudeaketa erretegia erantsita. Abenduaren 7ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean ageri dena oinarri hartuta, bi hilabeteko epean zor hori kitatu ez bada, Aldundiak isun espedienteak irekiko dio gidariari. **Aurkako ahotsak** 2020an zehar Bergara eta Beasain arteko autobidean bidesaria ez

jartzeko helburuarekin protesta ugari egin ziren. Garraiolarien Hiru sindikatua eta A-636 Beasain-Bergara Peajerik Ez plataforma urtarilean hasi ziren euren eskaria lau haizetara zabaltzen, auto-ilaren bidez. Apirilean eta ekainean ere beste horrenbeste egin zuten, une oro errepikatuz langileen eta ikasleen kalterako neurria izango zela. Gainera, Hiru sindikatuko Alberto Nuñezek adierazi du garraiolariak asko kostatuko zaiela gastu erantsi hori bezeroen aurrean justifikatzea, eta Aldundiak postura noiz aldatuko zain daude: "Ezezkoan jarraituz gero, mobilizazioetara itzuliko gara". Kontseilu Sozialistak ere, *Peajerik ez! Bizitzaren garestitzea gelditu!* lelopean, elkarretartzeak egin zituen abenduaren 16an Bergaran eta urtarilaren 9an Beasainen.

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



ikastolenelkartea

Urtarrilak 17 - 28

Matrikula zabalik



Txantxiku
Ikastola



ARANZADI *ikastola*
Kalitatezko Euskal Heziketa



arizmendi
ikastola

Aldarrikapenez beteriko lau urteri jarraipena

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak deitutako mobilizazioekin egingo dute bat bihar Debagoieneko pentsiodunek Donostian. Aldarrikapenekin hasi zirenetik lau urte igarota, "gizarte osoari" zabaldu nahi izan diote deialdia eta autobusa ere antolatu dute

Jone Olabarria ARRASATE

Lau urte dira pentsiodunak astelehenero mobilizatzen hasi zirenetik, eta, Gabonetako ete-naldiaren ostean, Debagoiengan ere herrietako plazetara itzuli dira aldarrikapenekin asteon. Lau urte hauen balorazio "positiboa" egin du bailarako pentsiodunen mugimenduak, eta orain arte egindakoak "merezi izan duela" azpimarratu.

"2018. urtean hasi ginen, gure pentsioetan %0,25eko igoerarekin, eta 2019an erretiroa hartzeko asmoa zutenek bazekiten pentsioan murrizketa erantsia izango zutela. Pentsioen borroka etorkizuneko belaunaldieta-



Arrasateko pentsiodunen mugimenduak astelehenean egindako elkarretaratzea. A.P.

koengatik ere bada. Badakigu pentsio publiko duinek berekin dakartzatela lan-baldintza duinak", azaldu dute.

Lortutakoarekin "harro"

Lau urteko aldarrikapenek fruituak eman dituztela azpimarratu dute, eta lorpen horietako hainbat zerrendatu: "2018an, oro har, pentsioak %1,7 igotzea; 2019an, %1,6; 2020an, %0,9; eta 2021ean, beste %0,9, %2,5era arteko atzerapenekin; gutxieneko pentsioak %3 izatea 2019an eta 2021ean".

Emakumeen egoeran ere jarri nahi izan dute fokua, eta gogorarazi dute 1.000 eurotik beherako pentsio guztien %72,33 emakumeenak direla.

Bihar, hiriburuetan deialdia

Edozelan ere, beste hainbat gauza egiteke daudela zehaztu dute, eta aldarrikapenekin jarraituko dutela gaineratu. Hain zuzen ere, zapatuan, urtarrilak 15, Euskal Herriko pentsiodunen laugarren urteurrena ospatzeko manifestazioak egingo dituzte Hego Euskal herriko lau hiriburuetan eta hainbat herritan.

Deialdia gizarte osoari zabaldu nahi izan dio Arrasateko pentsiodunen mugimenduko kide Juanito Saizarrek: "Dei berezia egiten diegu pentsiodunei, langileei eta, oro har, gizarte osoari urtarilaren 15eko manifestazioetan parte hartzeko eta Euskal Herriko kaleak betetzeko. Gure presioa kalean mantendu behar dugu".

Debagoienetik autobusa

Debagoiendarrek Donostiako Alderdi Edertik abiatuko den mobilizazioarekin egingo dute bat, 12:00etan. Bertara joateko autobusa antolatu dute: 10:15ean abiatuko da, Arrasateko Ospitaleko autobus geltokitik, geldialdia egingo du ostean Elorregin, oñatiarrak batzeko, eta, azkenik, Bergaratik pasako dira. Inork joan nahi badu, 669 95 84 92 telefonora dei egin dezala.

"DEI BEREZIA EGITEN DIEGU PENSIONISTAK, LANGILEEI ETA GIZARTE OSOARI"

JUANITO SAIZAR, PENSIONISTA

Fase berria salgai. Infoma zaitez!

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Jarraitu

GEk Bergarako etxebizitza-multzo honetan duela 15 urtetik gora duen esperientziari

Bergaran dagoeneko finkatuta dagoen bizitegi-espazio bati, kalitatezko etxebizitzekin eta eremu ireki eta arnasgarri batean.

Ondo egindako etxeei, betiko kalitate bikainekin eta zure etxebizitza bakarra egiteko pertsonalizazio-aukerekin.

Jarraitu proiektu BIZI bati, ENTZUTEN dakien erreferentziako sustatzaile baten eskutik.

Zuk bakarrik jarraitu. Ni arduratuko naiz zu zoriontsu egiteaz. **"Lorentxoko"**

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
Ernai, 1 · 20570 BERGARA.

comercial@grupoeibar.com

943 31 66 11
650 44 21 59



Erasorik ez, erantzunik gabe! lelopean elkarretaratzea Bergaran. J.O.

Urteko lehen erailketa matxista salatzeak, elkarretaratzeak

Tuterako emakumearen erailketa gaitzetsi eta "berehalako neurriak" exijitu dituzte asteon bailarako hainbat herritan

J.O. ARRASATE

Urtarrilaren 10ean aurkitu zuten hilda Tuteran, bere etxean, 38 urteko emakumea, eta martitzenean haren senarra atxilotu zuten Bordeletik gertu. 2022an Euskal Herrian hil duten lehenengo emakumea da, eta hori gaitzesteko elkarretaratzeak egin dituzte asteon Debagoieneko hainbat herritan: Bergaran eta Aretxabaletan eguaztenean eta atzo Arrasaten eta Oñatin, hain zuzen ere.

"Arazo estrukturala"

Martxantere egindako deialdiari jarraiki, indarkeria matxista amaitzeko neurriak exijitu zituzten bergarrek: "Urtea hasi besterik ez dugu egin eta dagoeneko halako berri ikaragarri batekin hasi dugu. Nazkatuta gaude, benetako gizarte matxista batean bizi gara eta neurriak hartzeko garaia da.

Ezin da gehiago itxaron, gaitz hau estrukturala da".

Indarkeria matxistaren aurka borrokan jarraituko dutela aldarrikatu, eta behin eta berriz neurriak eskatzen segiko dutela azaldu zuten: "Emakumea babesteko egun dagoen sistemak ez du funtzionatzen, inoiz baino babes gutxiagorekin gaude, eta halako erailketak dira adibidea. Jarraituko dugu aldarrikatzen aldaketa behar dela, baliabide publiko eta unibertsalak behar ditugu arazoari aurre egin eta emakumeak aske eta berdintasunean bizi ahal izateko, egokira sistematiko honi buelta emateko".

2003tik, 113 emakume erailda

Euskal Herrian 2003a ezker 113 emakume eta 11 adingabe hil ditu indarkeria matxistak; horietatik bost emakume iaz, 2021. urtean zehar, hil zituzten.

batzuk baliatzeko ere erabil daitezkeenak".

Funts hau modu proportzionalan banatuko da, biztanle kopuruaren arabera, Udal Foru Funtseko Fondoak banatzeko erabiltzen diren irizpideak jarraituz. Debagoienean, 2.130.635,17 euro banatuko dituzte zortzi herriren artean. Honela banatuta: Arrasate, 746.775 euro; Bergara, 495.003; Oñati, 389.812; Aretxabaleta, 240.164; Eskoriatza, 139.287; Antzuola, 70.787; Elgeta, 38.341, eta Leintz Gatzaga, 10.462.

Bi milioi euro pasa bailarako udalentsat COVID funtsetatik

COVID-19 gaitzaren pandemiak izandako eraginari aurre egiteko, Estatuak aktibatutako baliabideak lurraldeko udalekin banatuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, Gipuzkoako udalek 25,1 milioi euroko ekarpena jasoko dute, oinarriko zerbitzu publikoak -osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak- indartzeaz gain, "beste eskumen

Presoen alde herriz herri

Urteroko hitzordua osasun egoerara moldatuz, mobilizazioak egin zituen Sarek joan den zapatuan Euskal Herriko herrietan euskal presoen eskubideen defentsan. Oñatin, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Antzuolan manifestazioak egin zituzten; Gatzagan eta Elgetan, elkarretaratzeak; eta Aramaiokoak Arrasatera batu ziren.



GOIENA

ERRAZTASUNA

INBERTSIOA

AURREZPENA

EROSOTASUNA






ABIATUrekin, askoz gehiago!

A-636 Beasain-Bergara
autobian ere bai.

Urtarrilaren 18an jartzen da abian **A-636 Beasain-Bergara** autobiko bidesari berria.

Ibilgailu guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.

Gipuzkoan bizi diren autobien erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein VIA-T gailu edukitzea.

✓ **AURREZPEN HANDIAGOA**
(ABIATUrekin soilik)

Tartekako deskontuak.
Hileko gehiengoko gastua.

✓ **INBERTSIO HANDIAGOA**

Bildutako dirua errepidea hobetzeko eta mantentzeko erabiliko da.



ABIATUri eta bidesari berriari buruzko informazio gehiago:

www.bidegi.eus

📞 943 105 106
✉ info@bidegi.eus



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

20-22

20-22 bukatzen diren pilota partidak emozio handikoak izan ohi dira. Partida orekatua izan arren, pilotan ez da berdinketarik onartzen, irabazle bat eta galtzaile bat dago beti.

Hasi berri dugun 2022. urtea partidaz beterik datorkigu, eta irabazi nahi badugu, behintzat, jokatzeara dagokigu. Aurkariak, orde, ez ditugu makalak...

Frontoian inor baino hobeto mugitzen den Covid XIX.a pilotari txiki baina gogorraren kontra daukagu lehen partida. Orain arte botilero izan duguna aldatzen ez badugu, jai daukagu, 19an utziko gaitu aurkariak. Beraz, Urkullu botileroa joan dadila San Josera *botiloia* egitera; bide batez, ea irribarre bat ateratzen zaion gizon triste horri.

Bigarren partidako aurkariak Espetxea du abizena. Azkenaldian tantoak egin dizkiogun arren, 22ra iristea kostako zaigu, epailea bere alde baitago nabarmen. Txapapera bidaltzen dituen pilotak ere ontzat ematen

BOTILERO IZAN
DUGUNA ALDATZEN EZ
BADUGU, JAI DAUKAGU,
19AN UTZIKO GAITU
AURKARIAK

dizkio. Irabazi nahi bada, epailea aldatu beharra daukagu eta pilota ezker-eskuin mugitu ondoren dejada batekin amaitu. Hirugarrena Tapiaren aurkako partida izango da.

Bergara eta Zumarragako errauskailuen aire zikina Irimo gaineko haize-errotekin mugitzerik nahi ez badugu, atzeko koadroetara gogor bota beharko dugu pilota.

Partida hauek zein aurrerantzekoak borrokatu gabe irabazterik ez dagoela erakutsi digu herritar gazte batek. Gaixotasunaren aurkako partida galdu berri duen arren, irakasgai ederra utzi digu. 2019ko udaberrian, denbora luzez apurtuta zegoen ping-pong mahaia konpontzeko eskatu zion alkateari. Beñardok esan zion urte bukaerarako berria jarriko zutela. Hala ere, 15 urteko mutikoa ez zen gora begira gelditu, sinadurak biltzeari ekin zion eta 900 inguru lortu zituen; tartean, alkatearena.

Zauden tokian zaudela, frontoi ondoko ping-pong mahaia ikusten dugun bakoitzean zu ikusiko zaitugu. Eskerrik asko, Xabat!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Bakea, amodioa eta harm(onia)

OSKIA UGARTE
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Urtero bezala, Eguberriak zoriontzeko argazkiak eta mezuak agertzen hasi dira azken egunotan. Artearen Historia ikasten dugun guztiok bezala, irudien iruzkinak egiten ditut modu sistematikoan, eta zoriontasun eta desio onenak adierazi nahi dituzten irudi hauek mamitsuak izan ohi dira. Goiz izan arren, badugu aurtengo irabazlea: Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuko kide batek txiokatu duen argazkia. Familia tradizionalaren irudi zoragarria osatzen dute berak,

emazteak eta bost seme-alabek. Irribarretsu denak, zorionsu eta baturik dagoen familia ilehori zuri eredugarria. Gizonak atorra galtzen barrutik daramaten gizon horietakoak dira. Eta emakumeak, otzan eta neurritsuak. Denek irribarre zuri zabala dute, zoriontasunaren isla, haien bizitza osoan ezer txarrik egin izan ez balute bezala.

Konposizio orekatu simetrikoan daude Eguberrietako zuhaitz barroko baten inguruan denak, aurrekoak eserita eta atzekoak zutik daudela. Aurrez aurreko perspektibarekin irudikatuak daude, zintzotasuna eta agerikotasuna adierazten duen

irudi horietako batean. Dena harmoniatsua da, ontasunaren irudi normatibo eta eredugarria, xehetasun bat izan ezik: eskuetan fusilak eta bestelako armak dauzkate kide guztiak. Mezuaren eta irudiaren arteko arrakala eta distortsioa erabateko bihurtzen da. *Fake* bat lirudike, DGTren iragarki kontraesankor bat bezala edo Lladroren eskultura melenga horietako bat odoleztatua ikusiko bagenu bezala.

Kasu honetan, zalantzak edo dualismoa uxatu nahian, argazkiarekin batera Santa Clausi zuzentzen dion mezua idatzi du kongresukideak: *Santa, mesedez, munizioa ekarri...*

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Beste urte bat gehiago plazetan

ITZIAR USANDIZAGA
DEBAGOIENENKO PENTSIODUNEN
MUGIMENDUAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Urtarrilaren 15ean, Euskal Herriko pentsiodunen laugarren urteurrena ospatzeko manifestazioak egingo dira lau hiriburuetan eta Eibarren. Urte hauetan milaka eta milaka pentsiodun kalean izan gara. %0,25aren aurka eta pentsio publiko eta duinen alde.

Lau urte hauetan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta 70 bat herritan elkarretaratze eta manifestazioak egin ditugu. Ekimen asko babestu ditugu eta beste batzuetan parte hartu dugu: egoitzetako erabiltzaileen senideen elkarteekin, Osakidetzarekin, zerbitzu sozialekin elkarlana eta abar.

Egindakoaz harro gaudelako ospatuko dugu, baina gure eskariekin jarraituko dugu: KPI errearen igoera berehala aplikatzea 2021eko atzerapenean eta pentsioen errealizazioan; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta 1.200 euroko lanbide arteko gutxieneko soldata eskatzea; genero arrakala bukatzea; alarguntza pentsioa %100 izatea; pentsio publiko duin eta nahikoak edukitzea; eta pentsio sistema propioa izatea.

Dei berezia egiten diegu pentsiodunei, langileei eta,

oro har, gizarte osoari urtarrilaren 15ean hiriburuetan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko eta Euskal Herriko kaleak betetzeko.

Eskerrik asko Debagoieneko Ospitaleko hirugarren solairuko langileei

JOSU GARITAONANDIA
BERGARA

Arrasateko Debagoieneko Ospitaleko COVID solairuan lan egiten duten taldekoei nire besarkadarik beroena bidali nahi diet, nirekin bizi den 91 urteko familiakoa maitasun paregabe zaintzeagatik 316. gelan.

Lanez lepo zabiltzate, baina tartetxoa ateratzen duzue gelarik gela umorea banatzeko, COVIDarekin kutsatzeko arriskupean egunero; eta gaixotzen bazarete, zuen mutuaren aldetik entzungo duzue lanetik kanpo hartu duzuela. Pazientzia!

Baina ospitalearen beste aurpegi bat ere ezagutu dut: ostiral arratsalde batean esan zidaten ezin nintzela sartu COVID ziurtagiria eguneratuta ez baldin baneukan.

Nik neuk ez nuen sinesten egoera hura; aurreko hiru egunetan arazorik gabe sartu nintzen ospitalera, ni nintzen pertsona seguruen gaixoaren ondoan egoteko, gaixotasun berbera hartuta eta nire berrogeialdia beteta nuelako.

Beste edozein pertsonak – ospitaleko langile edo familiako–, nahiz eta babes pila bat jantzi eta txertoa eta COVID ziurtagiria eduki, nik baino arrisku handiagoa hartuko zukeen.

Alegia, zentzurik gabeko egoera bizi izan nuen; izan ere, lege berriak duen akats batengatik ezin nuen ziurtagiria Internetetik jaitsi, eta ez ziguten beste irtenbiderik eman.

Hasi bezala bukatuko dut: eskerrik asko momentu latz hauetan laguntzeko borondatea azaldu duzuen guztiei; ausarta izan behar da bailarako COVID gehien dagoen gunera joateko.

Eskerrak Oñatiko dendariei

ITZIAR AGIRRE VICENTE
URGAIN ESKOLAREN ETA OÑATI BHI-REN
IZENEAN
OÑATI

Abenduan, urtero bezala, eskolok gure matrikulazio kanpaina martxan jarri genuen.

Oñatin, matrikulazio garaian ohikoa izan da hiru eskolek bakoitza bere aldetik kartelak sortzea eta herriko hainbat gunetan jartzea; besteak beste, herriko dendetan.

Jakin badakigu Gabonetan dendariak esfortzu berezia egiten dutela beraien erakusleihoak bezeroentzat apaintzeko, erakargarriak izan daitezten. Ulertzen dugu ikastetxeak gure karteekin hurbiltzen garenean

beraientzat egoera deserosoa sortzen dela eta, askotan, dendariak konpromisoan jartzen ditugula gure kartelak erakusleihoetan jartzeko.

Azken urte hauetan, iruditzen zaigu egoera okerrera egin duela, ikastetxeon kartelak geroz eta handiagoak direlako.

Hori horrela, Urgainen erabaki dugu hemendik aurrera matrikulazio kanpainako kartelak soilik herriko adierazpen libreko gunetan jarriko ditugula eta ez ditugula dendariak konpromisoan jarriko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu dendari guztiei, orain arte izan duzuen jarreragatik eta gurekiko erakutsi duzuen prestutasunagatik gure matrikulazio kanpainetan laguntzeko.

Eskerrik asko, Xanti

PEDRO LASAGABASTER ARMENDARIZ
ESKORATZA

Iparraldeko haizeak aspaldi ekarri zauen Xanti gure auzora. Bertan berehalaxe errotu zan, haretx gogorrenak errotzen dien moruen. Niretzat iparraldeko zuhaitz haundi bat morukua zan Xanti, luzia ta zabala, bere txapel ahaztezinarekin.

Segiruan askoren maixu bihurtu zan bere poesiararen indarrarekin. Bere isilune luze eta sakonekin. Ereduaren bitartez zekixen dana erakutsiz. Umiltasunez beti.

Gero, askatasun haizeak iparralderuntz eruen zauen berriro. Eta han be eskola sortu zauen, milaka zaurien gainetik.

Beti euskal kulturaren alde.

Eta, azkenian, haretx zaharra hemengo basoetara bueltatu zan, jakindurixaz beteta.

Inoiz ez dot ahaztuko garai horretan bere onduan egindako bidaia luzia, berriz iparralderuntz, alabaren defentsan. Ordurako bizkarra apurtuta izan arren, trenaren eserleku eskasean jarri eta han egon zan, geldi gau osuan, filosofo estoikoen erara, isilik eta pentsakor.

Inoiz izan den matematikari onenak esaten zauen gure lorpen handixenak ez datozela gure merezimendutik : aurretik beste batzuek egindako lanari esker egiten diela. Erraldoien sorbalda goizelako lortzen dugula lortzen duguna.

Sekula ez genuke ahaztu behar Euskal Kultura oraindik bizirik badago Xanti Iparragirre Perurena moduko pertsonen esker dala. Euren bizkar gainean majo ibili garelako.

Hegoaldeko neguko haixiak orbelaren dantza infinituan eruen dau Xanti. Baso zaharretan ama haritzekin gertatzen dan moruen, ezkur eta kimu ugari utziz hil jaku.

Eskerrik asko, Xanti. Erraldoia izan zara.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Etxezarreta parkean egindako zuhaitz landaketa, izazko urtarrilean. GOIENA

Seber Altuben azoka eta Etxezarretan landaketa

Hileko hirugarren zapatuarekin batera, baserritarren azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan, 08:00etatik 14:00etara. Era berean, Zuhaitz Eguna ere egingo dute; hainbat landare egongo dira salgai eta mila bat zuhaitz landatuko dituzte Etxezarretan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bederatzigarren edizioa izango du Zuhaitz Egunak; azken urteetan moduan, aurten ere urtarrilean egingo dutenak –martxoan ere egin izan dute–. "Aurrez ere egiten ziren salmenta egunak, baina eten bat izan zen, eta azken urteetan Udalak konpromisoa hartu du urtean behin halako egun bat antolatzeke", azaldu du Pello Ga-

raik, Arrasateko Udaleko Ingurumen teknikariak.

Alde batetik, Seber Altuben bost mintegitako zuhaitzak eta landareak egongo dira salgai. "Oro har, aukera zabala egongo da: batetik, basoetan behar ditugun landare guztiak, koniferoak, hostozabalak; bestetik, fruta sailetan behar ditugunak ere bai; eta, azkenik, tamaina txikiagokoak ere egongo

dira, balkoietan jartzeko, esaterako".

Landaketa Etxezarretan

Bestalde, zuhaitz landaketa egingo dute Etxezarretako lurretan. "Iaz ez genuen amaitu landaketa eta aurten Etxezarretako sail hori osatzen jarraituko dugu. Hektarea bateko lursaila hartuko dugu, eta mila zuhaitz inguru landatu; batez

Bost mintegi egongo dira azokan

Bizkaiko eta Gipuzkoako bost mintegi izango dira zuhaitz azokan, eskaintza zabalarekin. Aurrez enkargatzea komeni da.

Azokan egongo diren mintegiak:

- **Areitio** (Zaldibar): fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak (608 87 93 52).
- **Belar** (Zaldibar): fruta arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak (629 48 41 51).
- **Etxebarria** (Gatika): fruta arbolak (639 46 97 38)
- **Lurberry** (Zarautz): baso fruitu txiki ekologikoak (657 71 96 85).
- **Ekoudalatx** (Arrasate): basoko fruitu txikiak, ekologikoak (690 61 08 22 eta 626 15 25 10).

ere, haritzak". Horiez gain, hariztietan egon ohi diren bestelako zuhaixkak ere landatuko dituzte: urkiak, lizarrak, astigararak, sagarminak, gorostiak eta abar.

Garaik nabarmendu duenez, inguru horretan lehen pinudi bat zegoen arren, pinuak egon aurretik berezko zuhaizti bat zegoen, era naturalean, eta zuhaizti hori hariztia zen. "Horregatik, atzera egin eta naturak berak sortuko lukeen hariztia berreskuratzen saiatuko gara".

Iazko landaketaren emaitzaz galdetuta, Garaik erantzun du landaketaren lehen urteak "nahiko motelak" izan ohi direla: "Mintegitik eremu naturalera pasatzean, kosta egiten zaio egokitzea, baina denborarekin hobetzen joaten da".

10:00etan Musakolan

Musakolatik abiatuko dira Etxezarretarantz. Horretarako, 10:00etan elkartuko dira, San Isidro elizaren ondoko plazan. "Azalpen guztiak eman ostean, Etxezarretara abiatuko gara eta prestatzen ari garen natura-bide berria ere ezagutaraziko dugu".

Herritarrak animatu gura dituzte landaketan parte hartzera.

"Egia da azken urteetan parte-hartze oso ona eduki dugula, eta aurten ere hala izatea espero dugu. 80 lagunek parte hartu ahal izango dute, gehienez, pandemia dela eta", dio Garaik. Izena emateko, 943 25 20 05 telefonora deitu beharko da. Azkenik, katiuskak edo mendiko botak eramateko gomendioa egin du Ingurumen teknikariak.

Garaiko produktuak ere bai

Baserritarren azokaren baitan, askotariko produktuak egongo dira, garaikoak: azak, porruak, eskarolak, kardoak, letxugak, kiwiak, sagarrak eta abar. "Bestalde, txorizo eta odolosteendako ere sasoi ona da, eta ogia, gazta, ezia, arrain kontserbak, pastelak eta abar ere egongo dira", dio Nerea Lazpiurrek, Toki Garapeneko teknikariak.

900 HARITZ ETA 100 BAT HOSTOZABAL LANDATUKO DITUZTE BIHAR, ZAPATUA, ETXEZARRETAN



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Hezur apuntatuta

Bai, horrela azaltzen dute Kulturaten ikusgai dagoen Lurralde Neandertal erakusketako tresna bat. Etsigarria da. Iruditzen zait beste aukera bat galdu dela Arrasaten aurkitu diren Paleolitikoko aztarnekin aro hura ezagutzeko zerbait ulergarria egiteko. Izenburua bera ere nahasgarria da: Lezetxiki neandertala omen zen, baina bertan aurkitutako beso

hezurra Heidelbergensis espeziearen andra batena zen.

Labeko Kobaren gaineko aipamenak eta aurkikuntzak ere jarri dituzte erakusketan. Horko aztarnak "gure espezieari" dagozkio, ez dira neandertalarenak. Eta Arrasaten hiru gizaki motaren aztarnak baldin badaude, zergatik erakusketako izenburu hori?

Jasaten ari garen kultura ofizialean oso ohikoa da izenburua eta mamia bat ez etortzea. Agian, egileak ez dira konturatu?

Paneletako testuetan ere betiko topikoak errepikatzen dira, hor ere ikusten da erakusketan honen egileak ez direla gehiegi saiatu, ezta euskarazko itzulpenetan ere. Ez da serioa.

Kosmetika naturala eta grabatua lantzeko aukera otsailean

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, kosmetika naturalari buruzko saioak otsailaren 2an, 9an, 16an eta 23an egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara, Ekoudalatzen eskutik. Grabatua lantzeko saioak otsailaren 3an, 10ean, 17an eta 24an izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko, 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietara deitu.

Kulturola ezagutzeko aukera dute herritarrek

Hilaren 17tik 23ra, egunean bi saio izango dira, 18:00etan gazteleraz eta 19:30ean euskaraz, Arantza Otaduren gidaritzapean. Bisita bakoitzeko gehienez ere 25 lagun onartuko dituzte eta aurrez izena eman beharko da, udal webgunean edota BAZen

Eneko Azurmendi ARRASATE

Kulturola eraikina da Arrasateko industria ondarearen "ikono garrantzitsuenetakoa", Union Cerrajera lantegiaren sarrera nagusia izan baitzen urte askoan. "Behin lantegiaren ateak itxita, Udalak eraikina errekuiperatu du, kultur sormenaren bihotz bilakatzeko asmoz", azaldu du Udal Gobernuak.

Eraikinaren balio historikoa eta herriko kultura eragilean topaleku izango dela aintzat hartuta, bisita gidatuek interesa piztu dute herritarrengan; izan ere, horiek gidatuko dituen Arantza Otadui historialariak nabarmendu duenez, leku asko



Kulturolako aretoetako bat, komunikabideei egindako bisitan, abenduan. GOIENA

bete dira dagoeneko. Hala ere, oraindik lekua badagoela adierazi du eta aukera aprobetxatzeko dei egin die herritarrei.

Lanak, amaitzeaz

Kulturolaren eraberritzea azken txanpan murgilduta dago. "Lan guztiak ia amaituta, 4.786 metro karratuko azalera duen eraikinean azken erremateak egiten ari da gara: argiteria, pintaketa, instalazioak eta abar".

Hala, ondo bidean, datozen asteetan erabilgarri egongo da, eta, hain justu, orduan lekualdatuko dira eragileak eraikin berritura: Izaskun Murgia Lirika elkarte, Arrasateko Konpartsa, Zaldibar areto-futbol txapelketa, Arrasateko Bertso Eskola, Doke Antzerki Taldea, Santamas Komisiñua, Arrasateko Gaiteroak, Portaloikultura Elkarte, Lore Gazteak Dantza Taldea, Txikitxu Arrostitz Dantza Taldea, Arrasateko Trikitixa Eskola, Arrasateko Ttakun Txalaparta Elkarte, Udalaxpe Txistulari Elkarte, Loixe Zeramika Elkarte, Arrasate Margo Taldea, Sambamaña taldea, SUDC eta Udal Euskaltegia.

Familian Jolasean ekimena domekan jarriko dute martxan

Udaleko Gazteria Sailak, Txatxilipurdirekin elkarlanean, Familian Jolasean ekimenaren beste edizio bat jarriko du martxan domekan, urtarrilak 16. "Ekimen honen helburuetako bat da familiei aukera eta guneak eskaintzea gurasoen eta seme-alaben arteko harremanez era ludikoan gozatzeko".

Domekan hasi eta martxoaren 27ra bitartean, hamaika saio egingo dituzte: urtarrilak 16, 23 eta 30; otsailak 6, 13, 20 eta 27; eta martxoak 6, 13, 20 eta 27. Okendoko ludotekan izango da hitzordua eta dagoeneko izena eman daiteke bai ludoteketan eta baita aktibitatean bertan. Plazak mugatuak dira.

0-8 urte arteko familiek elkar ezagutzeko eta euskaraz elkarrekin jolasteko aukera bat eskaintzen du ekimenak, "aniztasuna kontuan hartuta eta euskararen transmisioaren garrantzia azpimarratuta". Bi hezitzaile egongo dira familiei informazioa eta aholkuak emateko.



arizmendi ikastola

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

ATE IREKIAK

URIBARRI

0-3 URTE

Uribarri etorbidea z/g.a

urtarrilak 20-26
17:30

UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

urtarrilak 15
11:00

HARTU ZURE
TXANDA HEMEN!



943 77 20 25 www.arizmendi.eus

MATRIKULA
EPEA!
URTARRILAREN
17TIK 28RA

Urbanizazio lanak hasiko dituzte Gautxori eremuan

lazko martxoan hasi zituzten Uribe Goikoa eta Uribe Behekoa baserriak eta inguruan zeuden lau hangar eraisteko lanak, eta dagoeneko amaitu dituzte; hala, eremua urbanizatzen eta eraikin nagusia izango dena eraikitzen hasiko dira datozen egunetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aldi berean egingo dituzte Gautxori eremuaren urbanizazioa eta eraikin berria. Urbanizazioa egiteko lanek hamahiru hilabete epea daukate eta eraikin berria egitekoek, berriz, hemezortzi hilabetekoa. Beraz, 2023ko irailean bukatuta egotea aurreikusten du Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile Carlos Garciak. Izan ere, azaldu duenez, aurreikusitako epeak betetzen ari dira, oraingoz, nahiz eta "hainbat arazo" izan dituzten.

Urbanizatzeko lanak hiru fasetan egingo dituzte. "Garaia Parke Teknologikorako sarreran biribilgune bat egingo dute. Hortik sarrera bat egingo dute, Fagor Ederlanen eta gure eraikinaren artean pasako dena, errekaraino, eta hor bihurgune bat egongo da, errekarainen paraleloan bidea Uribe auzoraino eramanez. Errepideaz gain, espaloia, bidegorria, aparkalekuak eta zuhaitzak egongo dira, besteak beste", adierazi du Garciak.

Bestalde, gaur egun aparkaleku nagusiak hartzen duen leku gehiena hartuko du eraikin berriak, eta orain arte hangar zaharrek okupatu duten lekuan egingo dituzte aparkalekuak, egun dauden 170ak baino 49 gehiago. Beraz, guztira, 219 aparkaleku egongo dira gero.

Ekintzailetasuna bultzatzeko

Urbanizazioarekin batera, esan moduan, eraikin nagusia egingo dute, "etorkizunean Debagoieneko industria sarea berritzea" ahalbidetuko lukeena. Garciak azpimarratu duenez, askotariko espazioak izango ditu eraikin horrek, makina edota tresna berriak probatzeko, nagusiki. "Ekintzailetasuna bultzatzeko erabiliko dugu eraikina; gehienbat, alor praktikoa lantzeko. Beheko solairuan laborategi industrialak egongo dira, altue-



Esparruak hartuko duen itxura. Eraikin nagusia, erdian, zuhaitzez inguratuta. M.U.

AURREIKUSTEN DUTE 2023KO IRAILERAKO BUKATZEA GUNEAREN URBANIZAZIOA ETA ERAIKIN BERRIA

ra handikoak, tamaina handiko gauzak probatzeko. Horrez gain, lokal sozial bat ere egongo da. Lehenengo solairuan beste laborategi berezi bat egongo da, gainazaleko teknologiek lan egitekoa. Azkenik, bigarren eta hirugarren solairuan, batez ere, proiektu ekintzailerekin ari direnei zuzendutako espazioak egongo dira. Normalean, Garaia Parke Teknologikoan egongo dira pertsona horiek".

Gainera, eremuan dagoen beste eraikina mantendu egingo dute, "guk hamargarren eraikina deitzen dioguna, Arizmendi Ikastola parean dagoena".

HIREKIN proiektua, Gautxorin

Uribarri auzoko 26.221 metro karratuko esparru horretan gauzatuko da, esaterako, HIREKIN proiektua, "lankidetzaren, ikerketaren eta ekintzailatzaren

bitartez emisioak murriztera eta ingurumen helburuak betetzeko irtenbideak bilatzera bideratuko dena", proiektuaren koordinatzaile Roberto Uribeetxeberriak azaldu duenez. Mondragon Unibertsitateak sustatutako proiektua da, eta D2030 egitasmoak lagundutakoa.

9,5 milioi euroko aurrekontua

Proiektuak, orotara, 9.500.000 euroko aurrekontua du. Batetik, eraikin berria egiteko 6.000.000 euro erabiliko dituzte, eta, bestetik, urbanizazioa egiteko, 3.500.000 euro. Edozelan ere, hainbat laguntza jasotzen ari da Mondragon Unibertsitatea. Espainiako Gobernuak, esaterako, 700.000 euroko laguntza eman zion iaz, eta 2022an 1.000.000 eurokoa emango diola zehaztu du Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaileak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, beste 1.000.000 euro bideratuko ditu proiektu horretara, eta Gizabidea fundazioak ere babestu du proiektua. Era berean, 2019ko maiatzeko osoko bilkuran 1.137.000 euroko ekarpena egitea onartu zuen Arrasateko udalbatzak.

GORA ETA BEHERA



H.L.

Udal langileen lana, goraipatzekoa

Udal langileek egiten duten lanari balioa eman gura izan dio herritar batek. "Lan handia egiten dute, esaterako, herriko biribilguneak txukun eta garbi mantentzen", nabarmendu du.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Apirilaren 10ean egingo dute Arrasate-Udalatx mendi proba

Urte berria hastearrekin batera, lasterketaren eguna publiko egin du Mondraitz Kirol Klubak, antolatzaileak

E.A. ARRASATE

Mondraitz Kirol Klubeko ordezkariak Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren data publiko egin dute: apirilak 10, domeka. Oraingoz, eguna bakarrik zehaztu dute, eta laster informazio gehiago emango dutela azpimarratu dute.

Pandemiaren egoera ona ez zela ikusita, iaz, Arrasate-Udalatx mendi lasterketa egin beharrean, ekitaldi berezi bat antolatu zuten Mondraitzekoek. Hala, lehiaketa bat modu birtualean egitea erabaki zuten, apiril osoan

zehar, eta ia 100 pertsonak parte hartu zuten.

Antolatzaileak pozik geratu ziren ezohiko lehiaketa hark emandakoarekin, baina aurten, ondo bidean, ohiko moduan egitea aurreikusten dute. "2020ko mendi lasterketa bertan behera geratu zenean dortsala zeukatenek lehentasuna izango dute aurten. Edozelan ere, garbi emango dugu informazio guztia aurrerago, berezitasun batzuk izango ditugu eta", nabarmendu du Ganix Lasak, Mondraitz Kirol Klubeko kideak.

81 urterekin errekor berria ezarri du Maria Jose Gilek Donostian

Joan den zapatuan, urtarrilak 8, Donostian jokaturako Euskadiko Masters txapelketan Espainiako 400 metroko errekorra ondu zuen berriro Durango Kirol Taldeko arrasatearrak, 80F kategorian, bi minutu eta segundo bateko marka eginda. Lehenengo errekorra bi minutu eta hamabi segundoan zeukan. 81 urte ditu Gilek.

Federatu txartelak bulegoan jasotzeko dei egin du Besaidek

Besaide Mendizale Elkartek bazkide guztiei gogorarazi die federatu txartelak bulegoan bertan jaso behar dituztela. Horretarako ordutegia honako hau da: martitzen eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. Bestalde, hainbat eski irteera ere antolatu ditu Besaidek. Urtarrilaren 23tik 30era, esaterako, Formigalera joango dira.

ARRASATE



HERRI ESKOLA

Bisita gidatuak: Urtarrilak 15
Musakola, Bedoñabe eta Erguinen.

Hitzorduak:
zuzendaria@arrasatehe.eus



INSTITUTUA

Institutuan: Urtarrilak 18, 18:00
Aramaion: Urtarrilak 19, 18:00



goieskola
debaioleko euskal
eskola publikoa



GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

→ **MATRIKULAZIOA:**
URTARRILAREN
17TIK 28RA



Guztion eskola, guztion artean

"Balio handiagoa eman behar genioke kulturari"

AITOR BARBADILLO CRAP TALDEKO BATERIA-JOLEA

Zazpi abestiz osatutako biniloa kaleratu berri du CRAP taldeak, eta Spotify plataforman entzungai dago. Laukotea batuta egoteagatik egiten dute musika

Hasier Larrea ARRASATE

Iker Azkarraga, Ander Azkara, Borja Perez eta Aitor Barbadillo dira CRAP taldea osatzen duten musikariak. Barruak askatu dituzte azken bi urteetan jazotakoak euren ikuspuntutik adierazita.

Disko pandemikoa dela diozue. Zer dela eta?

Idea guztiak pandemia garaian garatu genituelako. Egunerokotasunean oinarritzen gara letrak idazterakoan, eta, oraingoan, ezin gai honi izkin egin.

Zer topatuko du entzuleak 'We are... CRAP' LPan?

Sei abesti propio; hau da, ingelesezko bost eta euskarazko bat -egin dugun lehen-, eta Sex Pistolsen *Did you no wrong*-en bertsioa. 70eko Australia, Ingalaterra eta AEBetako punketik, 60ko rock klasikotik eta Eskandinaviako punk rock high energytik edaten dugu, batez ere.

Kantuen izenburuak zuzenak dira, interpretazio gutxi behar dutenak.

Lehenengoa, *Prisoner (in my living room)*, konfinamenduari buruzkoa da; *Sweetest friend*-ek lagunen arteko gorabeherak ditu ardatz; *Too much rock & roll* kantak asteburuetako desfaseez dihardu, nola hel zaitezkeen lanera lur jota astelehenean; *Dirty road* exteratze aginduren bueltan egin genuen, kontzertuetara joateko nahia erakusten dugu hor; *We are CRAP* gure esentziatik egin dugu, jende jakin batez nazkatuta gaudela adierazteko; azkena, *Mundu baten*, Brutal Melodyko Aner Narbaez abeslariak idatzi digu, eta gaur egungo politikari buruz mintzo da.

Gustura zaudete emaitzarekin?

Zeharo. Pookah Sound Estudio-ko Mike Ether-ekin grabatu dugu Bilbon. Aspaldiko laguna dugu, Safety Pins taldekoa. Gertutik jarraitzen dugu bere lana, eta Damned taldearen bertsio bat grabatzeko aukera izan genuen



Laukotea, 2021eko urriaren 16an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. POLI KARPO

"KONPOSATZERAKOAN, HITZ SOLTEEKIN KANTUAN HASI ETA GERO GARATZEN DUGU IDEIA, BEHAR BEZALA"

Pookah-en. Hura entzundakoan oharatu ginen lan luzea toki berean egin nahi genuela; esan eta egin. Gure ustez, sekulakoa da emaitza. Biniloa nahi duenak gurekin edo banatzaileekin kontakta dezake (Ikus behean).

Kantuak aurkeztu al dituzue jendaurrean?

Azken hauek ez, fisikoki heldu arte itxaron baitugu. Dena ondo bidean, Oñatiko Ikatz tabernan joko dugu Discipulos de Dionisiorekin, otsailaren 4an. Azkenaldian kontzertu gutxi eman ditugu; gogoangarriena Jimmy Jazz aretokoan izan zen urrian, *Nowhere trip* eta *CRAP* albumetako abestiak jo genituen bertan.

Nola eboluzionatu duzue, oro har?

Serioago jarri gara. Konposatzerakoan buelta batzuk ematen dizkiogu hasierako ideari, ez larregi eta ez gutxiegi. Zuzenekoetan ahalegintzen gara kantuak bata bestearen ostean jotzen, etenik gabe ia.

Eta zenbat aldatu da zuek mugitzen zareten zirkuitua?

Jendeak kontzertu handietara joateko joera hartu du, taberna eta areto txikien kalterako. Horri gehitu agintariak gaueko aisialdia murrizten dabiltzala... Ataka estuan gaude, bai musika bandak eta baita aretoak ere.

Ezer gehiago gehitu nahi?

Politikariei autokritika gehiago egin behar lukete, errua ostalariei bota eta ospitaleko langileak kaleratu beharrean.



WE ARE... CRAP

- Estiloa Punk-rocka.
- Grabaketa Pookah SE.
- Banaketa CRAP, Kaset Ekoizpenak, Family Spree Recordings.



Maren Basterretxea, Miriam K. Martxante eta Javier Barandiaran dira aktoreak. ATX

Bizi-estiloak kontrajarriko ditu 'Lubaki lainotsua' antzezlanak

ATX Teatroak konpainiak domekan aurkeztuko du "pertsonaia sakonekin" ondutako bere azken obra

H.L. ARRASATE

Joan den urrian estreinatutako antzezlanak jasoko du Amaia antzokiak etzi, hilak 16, 19:30ean hasita. 2010ean sortutako konpainia bilbotarra umore kutsuko lanak egiten iaioa izan arren, *Lubaki lainotsua* zuzendu duen Iñaki Ziarrustak adierazi du orain arte egin duten "ikuski-zunik serioena" dela.

Gerra garaian kokatu dute istorioa, eta abiapuntua soldadu beterano batek postari gazte baten bidez jasoko duen gutuna izango da: "Soldadu zaharraren barne mundua hankaz gora jarriko du mezu horrek". Aitzakia horri tiraka garatuko dira belaunaldi ezberdinetako bi pertsona horien arteko elkarrizketak, sokaren bi aldeak elkartzeko saiatuko den bitartekariaren esku hartzearekin. Zuzendariak nabarmendu du ahalegin berezia egin dutela "aktoreen psiko-

logia markatzen". Obraren testuak bizitzako gai ugari azaleratuko ditu: maitasuna, heriotza, beldurra, gupida, gorrotoa eta frustrazioak, besteak beste.

Askotariko irakurketak

Ximun Fuchs antzerkilariaren kanpo begiradaz baliatu da Ziarrusta lana sortzerakoan, eta Gartxot Unsainek propio diseinatutako musikak janzten du kontakizuna. Dekoratuari dago-kionez, ikusleak "erraz" ulertzeko moduko eszenografia errealista landu dute ATXko kideek: "Hondarrez betetako zakuz eta egurrez betetzen dugu oholta, lubaki itxura eman nahian".

Ikusleengandik jaso dituzten inpresioak, aldiz, "askotarikoak" izan direla aipatu du zuzendariak, eta norberaren ikuspuntuan adinak faktore garrantzitsua jotzen duela nabarmendu: "Ederra da hainbeste irakurketa egotea".

Literaturaz familian goatzeko txokoa, hiru zapatu goizetan

Ipuin-jolas txokoan izena emateko epea ireki du udal bibliotekak, 4 eta 6 urte arteko haurrei eta euren gurasoei ipuin, kantu zein olerkiak ezagutzeko espazioa eskaintzeko asmoz. Mari Garciak dinamizatuko dituen saioak urtarilaren 22an eta otsailaren 5ean eta 19an izango dira, Kulturaren Bertan eta *arrasate.eus*-en eman daiteke izena.

Lukiek taldea igoko da Koolturen eskutik gaztetxeko oholatzara

Atzo Zetak-ek egin bezala, Labana zegoen datorren eguneko programatuta, baina, taldeak kale egin duela-eta, Mungiako hirukotea gonbidatu dute Kooltureko antolatzaileek hilaren 20an 22:00etan hasiko den kontzerturako. Ibilbideko bigarren albuma argitaratu du berriki, euskarazko rock alternatiboaren aldeko apustuari eutsiz.

Sare sozialak eta euskara batzeko ariketa

Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta Arabako euskara zerbitzuak daude ekimenaren atzean. 14 urtetik gorakoei zuzendutako ekimena da. Zazpi astez egingo dute euskara-ginkana eta astero bozgorailu eramangarri bat zozkatuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak *Egin eta Klik* ekimena jarri du martxan. Sare sozialak, aisialdia eta gazteak batu gura dituen ekimena da, euskara ardatz hartuta. Foru Aldundiko Euskara teknikari Aintzane Osak azaldu du: "Euskararen Foru Zerbitzuan lurraldeko sustapenarekin arduratzen gara. Kuadrilletako teknikariek eta udal teknikariek elkarlanean aisialdiaz arduratzen den lantalde bat dugu". Talde horren lan-lerro nagusietako bat aisialdia izaten da: "Konturatu gara konfinamendu garaian sare sozialek indar handia hartu dutela; eta, aldi berean, euskarak oso toki txikia duela sare sozialetan". Testuinguru horretatik abiatuta sortu dute *Egin eta Klik* ekimena.

Astero egiteko erronkak

Aiaraldeko Komunika kooperatiba arduratu da ekimena aurrrera eramateaz. "Planteamendua erraza da. Astelehenero erronka bat botako dugu Instagram sare sozialaren bitartez, eta gazteek igandera arte izango dute erronka egiteko aukera", azaldu du komunikazio arduradun Allende Solaunek.

Egin eta Klik ekimena 14 urtetik gorako Arabako gazteendako euskara-ginkana da: "Jolas moduko jarduera bat proposatu nahi diegu. Sare sozialetan eta euskaraz, ahalik eta modu naturalenean eta berdinetik berdiner". Aurrez aurreko ohiko jardueraz gain, horrelako espazio txiki batzuk izatearen garrantzia nabarmendu du: "Debate hori ireki nahiko genuke. Alferrik da pantailen kontra borrokatzea... Bada, erabil ditzagun".

Zazpi asteko ginkana

Euskara-ginkanak otsailaren 26ra arte iraungo du. "Gazteek hainbat proba egin beharko di-



Sakelakoarekin @arabakogazteak kontua jarraitzen. A.E.

ASTERO BOZGORAILU ERAMANGARRI BAT ZOZKATUKO DUTE 14 ETA 16 URTE BITARTEKOEN ARTEAN

tuzte. Batzuk oso errazak izango dira; adibidez, argazki bat partekatzea. Beste batzuk zailagoak izango dira", dio Solaunek.

Parte hartzeko egin behar dena da: Instagram sare sozialean @arabakogazteak kontua jarraitu. Astean behin edo bitan Arabako gazte batek proposamen bat egingo die parte-hartzaileei. Gai eta formatu askotariko erronkak izango dira, eskuko telefonoarekin grabatu eta zabalduko direnak. Gazteek erronka hori egin beharko dute. Eskuko telefonoarekin grabatu edo argazkia atera... Dena delakoa egin eta lana zuzenean igo beharko da Instagramera. "Hiru modu egongo dira bideoak igotzeko. Istorio, Reel edo IGTV formatuan igotzeko aukera egongo da, eta beti @arabakogazteak kontua aipatu beharko da", nabarmendu du Solaunek.

Instagram konturik ez dutenek bideoa telefonoz zuzenean Whatsappera bidaltzeko aukera izango dute: 639 85 53 12 telefono zenbakira. "Zenbait gaztek Tiktok sare soziala erabiltzen dute, baina ez Instagram. Horregatik, bigarren aukera hau ere gazteen eskura jarri gura dugu".

Sariak banatuko dituzte

Astelehenetik igandera arte jasoko duten erronka guztiekin bilduma bat egingo dutela dio Solaunek, eta astero bozgorailu eramangarri bat zozkatuko dutela 14 eta 16 urte bitarteko gazteen artean. Gainera, ginkana amaitutakoan beste opari bat zozkatuko dute: lau sarrera natura abentura parke baterako.

Jendea batzea

Gazte arabarrei zuzendutako ekimenak ahalik eta jende gehien batzea du helburu. Aisialdi garaian gazteek euskara gehiago erabiltzea eta sare sozialetan poliki-poliki euskara sustatzea da ekimenarekin lortu nahi dena. Ekimena bera 14 urtetik gorakoei zuzenduta dagoen arren, antolatzaileek nabarmendu dute edonork parte har dezakeela.

'Aita Mari' proiektuari laguntzeko 242 euro batu dituzte Aramaion

Domekan proiektatu zuten Javi Julio zinemagilearen 'Aita Mari' dokumentala ikustera 70 herritar joan ziren

A.E. ARAMAIO

Javi Julio zinema zuzendari donostiarrak egindako *Aita Mari* dokumentala eman zuten domekan kultura etxean. 70 lagun joan ziren lana ikustera, eta, guztira, 242 euro batu zituzten sarrerarekin. Hain zuzen, diru kopuru hori *Aita Mari* proiektura bideratuko dutela azaldu du Cristina Ettxenausiak, Gizarte Ongizate zinegotziak.



Herritarrek kultura etxean. O. ELORZA

Itsasora laster

Dokumentalaren emanaldian izan zen Izaskun Arriaran aramaioarra. Gaur egun, Itsas Salbamendu Humanitario GKEko presidentea da Arriaran. *Aita Mari* ontzia Burrianan dute (Castello), eta han da dagoeneko erizain aramaioarra ere. Euren asmoa da datorren astean itsasoratzea. Orain, antolakuntza lanetan dihardute: boluntarioak

koordinatu, janaria erosi, erreskate kitak antolatu... Hain zuzen, "behar nagusia behar ekonomikoa" dela dio Arriaranek.

2021eko udan egindako aldatketen ondoren, 150 lagunendako toki dute orain ontzian, eta 15 laguneko eskifaia, gehienez.

Aramaioko Argindar Banatzaileak argiketaria behar du

Aramaioko Udalak lan eskaintza zabaldu du: Aramaioko Argindar Banatzaileko kudeaketa teknikoaz arduratuko den elektrikaria behar dute. Udalaren sare elektrikoa mantentzea eta hobetzea, larrialdiei aurre egitea eta aurrekontuak kudeatzea izango dira, besteak beste, egin beharreko lanak. Elektrizitateko lehen mailako Lanbide He-

ziketako titulua edo baliokidea izatea, bigarren euskara eskakizuna, B gidabaimena eta bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez egotea ezinbesteko baldintzak izango dira.

Interesa dutenek Lanbideren bitartez eman beharko dute izena derrigor, 162022000168 erregistro zenbakiarekin. Eskaintzen dena da lanaldi osoko txanda-kontratua eta aurreikusitako laneratzeko-data martxoaren 1a izango da. Informazio gehiago Lanbideren atarian kontsulta daiteke.

Pintaketak eraikinetan

Urtarrilaren 11n, herriko zenbait eraikin publiko eta pribatu COVID ziurtagiria-ren aurkako pintaketekin agertu ziren. Udalak "atsekabea" agertu du, eta gaineratu du osasungintzan Udalak ez duela eskumenik. "Aldarrikapena eta askatasuna era kolektiboan ez badira lantzen, ez dute ez zentzurik ez baliorik", azaldu dute ohar bidez.



ARAMAIOKO UDALA

Astelehenean hasiko dira Santa Kurtzeko lanak

Urtebete inguru iraungo dute eta bost fasetan egingo dituzte; Otalora kaleko biribilgunetik Iparragirre kalera arterainoko tarteari helduko diote lehenengo, eta lau bat hilabeteen bukatuko dituzte. Bizilagunei pazientzia eskatu diete lanok iraun artean

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Santa Kurtz kaleko lanei ekiteko prestatze lanak hasi dituzte eta astelehenean bete-betean helduko diete. Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu zizkion Udalak, 2.042.544 eurotan, eta, hornidura eta saneamendu sareak ordezkatzeko gain, kalea berrurbanizatu egingo dute. Agintaldiko proiektu estrategikoa da Udal Gobernuarendako, eta urtebete inguru iraungo dute lanek: "Bizilagunei pazientzia eskatzen diegu. Autoendako lekuak ordezkatzeko, esaterako, aparkaleku berria egokitu dugu Otalora kalean", adierazi du Hirigintza zinegotzi Xabi Otxoak.



Josu Agirrezabalaga obra zuzendaria eta Xabi Otxoa zinegotzia. HASIER LARREA

Bost fasetan banatuta

Kaleak 300 metro inguru ditu, eta bost fasetan banatuta bertutuko dute. Lehen fasea joango da Otalora kaleko biribilgunetik Iparragirre kale alboraino, eta lau hilabete beharko dituzte horretarako. "Kale osoa altxatuko da eta zerbitzu guztiak bertutuko dira. Oztopo arkitektonikoak desagertu egingo dira eta kota berean jarriko da guztia", azaldu du Josu Agirrezabalaga obra zuzendariak. Lehen fasea bukatutakoan, Iparragirre kaleari berari helduko diote: "Hilabeteen egingo da hori, eta, horrela, Santa Kurtz kale osoaren erdia inguru egingo da egongo litzateke".

Hirugarren fasean helduko diete Iparragirre kaletik Sarasaterainoko lanei, eta beste lau hilabete beharko dituzte bukatzeko. Eta laugarren fasean, Sarasate kalea bertutuko dute. Azken lanak Kurtzabarri eskola inguruan egingo dituzte. Gabon ingururako erabat bukatzea da asmoa: "Kaleak beste itxura bat hartuko du, espaloien eta errepedearen arteko koskarik gabe", dio Agirrezabalagak.

Bedarreta auzoan hainbat lan

Bedarretako San Migel auzoko irisgarritasuna hobetzeko lanak hasi dituzte. Hainbat puntutako oztopo arkitektonikoak kentzea da helburua, oinezkoen joan-etorriak errazteko, eta lau kaletako hamasei puntu egokituko dira. Ibilbide irisgarriagoa lortzeko, baldosa botoidunak jarriko dituzte, ikusmen urritasuna dutenei laguntzeko. Zebra-bideak margotu egingo dituzte, gainera. Bestalde, oinezkoentzako pasabide altxatua egokituko dute Lausitta biribilgunearen ondoan, kale hori Txarapea ibilbidearekin lotzeko.

Excavaciones Arrasate enpresari esleitu dizkio lanak Udalak, 53.974 eurotan, eta sei astean bukatuko dituzte.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 17tik 28ra**

Hitzordua hartzeko deitu.

Pandemia egoera dela eta, ezinbestekoa da hitzordua eskatzea.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria



Bulegoren kontzertua eta 'Tarara' antzezlanak laster

Kultura ekitaldietarako sarrerak online eros daitezke orain; horretarako, Udalaren webgunean 'Agenda' ataleko 'Erosi zure sarrera' loturan sartu behar da; urtarrileko ikuskizunetako sarrerak dagoeneko eskuragai daude

Mirari Altube ARETXABALETAK

Aste honetan jarri dute abian Kultura Sailak antolatutako ekitaldietarako sarrerak online erosteko aukera. "Sarreraren erosketa erraztea" eta, bide batez, "kultura herritarrengana hurbiltzea" dira helburuak, eta Internetarako konexioa duen edozein gailutatik hartu ahal izango dira. Sarrera erosteko, *aretxabaleta.eus* webguneko *Agenda* ataleko *Erosi zure sarrera* loturan egin behar da klik; edukiera erakusten du eta butaka aukera daiteke bertan.

Kudeaketa gastuak direla-eta online sarrerak 10 edo 25 zentimoko erretegia izango dutela

jakinarazi dute. Arkupeko lehiatilan ere salduko dituzte, orain arte legez, aldez aurretik zein emanaldiaren egunean bertan.

Bulego taldearen kontzertua

Kultura Sailak urtarrilerako gertatu duen egitarauaren barruan, Bulego musika talde azkoitiarraren kontzertua dago. *Erdian oraina* lehen diskoa aurkeztuko du hilaren 22an, Ibarra kiroldegian, 19:00etan –sarrera: 5 euro–. Pop doinuak lantzen ditu Tomas Lizarazu buru duen boskoteak, eta azken hilabeteetan bereziki gaztetxoaren artean ezagun egin diren kantak eskainiko dituzte; besteak beste,

Bueltan da, Ezer ez da berdina eta *Bagoaz*.

'Tarara' antzezlanak

Hika Teatroak, ostera, asteburuan estreinatuko duen *Tarara* antzezlanak ekarriko du Arkupeko hilaren 23an, domeka, 19:00etan –sarrera: 5 euro–. Agurtzane Intxaurragak zuzendutako lana da eta Kepa Errasti aretxabaletararekin batera Sandra Ferrus, Jurdana Otxoa, Eneritz Artetxe, Jose Cruz Gurruixaga, Adrian Garcia de los Ojos eta Iñar Sastre dira ikuskizun horretan diharduten aktoreak. Josi Alvaradok idatzitako lanak –Arantxa Iturbek



Bulego taldea Oñatiko gaztelekuan. IMANOL SORIANO

itzulita– barkamenari, adiskidetasunari eta amatasunari egiten dio gorazarre.

Porrotx eta Marimotots

Umeek Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren intxaurrak* ikuskizuna izango dute –abenduen 23an atzeratutakoa–. Urtarrilaren 20an eta 21ean, bina emanaldi egingo dituzte, 17:00etan eta 18:30ean, Arkupen. Aretoaren edukiera %60ra murriztuta dago eta prebentzio-neu-

rri gisa lau saio antolatu dituzte Kultura Saileko kideek, "joan den hilabetearen bertan behera utzi ziren emanaldiarentako erre-serbatutako sarreraren kopurua bermatzeko".

Bestetik, urtarrilaren 19an, eguaztena, *Petra ipurdian bost letra* saioa eskainiko die Isabel Agirresarobe ipuin kontalariak 4 eta 8 urte arteko haurrei, Txiki-Txokoan, 18:00etan; izena aldez aurretik eman behar da, liburutegian.



BiHOTZEZ ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA

haur eta lehen hezkuntza
(2-12 urte)

URTARRILAK 15 GOIZEZ, BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46

zuzendaritza@kurtzebarri.eus

*Banakako bisitak urtarrilaren 17tik 28ra.

MATRIKULAZIO EPEA

Urtarrilaren 17tik 28ra

ZATOZ GU EZAGUTZERA!







Hipnosia talde berrian musika eskolako bi kide

Eskarmentu handiko musikariak eta irakasleak dira Emilio Vazquez eta Juan Carlos Calvo, Akerbeltz erromeria taldeko kideak, eta pandemia sasoian talde berria eratu dute eta diskoa kaleratu; rock doinuak hartu dituzte ardatz kantuak sortzerakoan

Mirari Altube ARETXABALETA

"Garai zailak" bizi dituzte musika taldeek, eta garaiotara ego kitu beharrean izan dira asko eta asko. Akerbeltz erromeria taldeko hainbat kidek, esaterako, Hipnosia talde berria eratu dute, eta izen bereko diskoa kaleratu. Talde horretan Leizarrak musika eskolako bi irakasle daude: Juan Carlos Calvo eta Emilio Vazquez. Hain zuzen, azken horrek sortu ditu disko berriko kantu guztien doinuak eta askoren letrak.

Hamaika abesti

Basaurikoa da Calvo eta lau bat urte daramatza Aretxabaletako musika eskolan baxua irakasten; Vazquez, oster, Erandiogoikokoa da eta dagoeneko hamaika urte daramatza gitarra eskolak ematen. "Biok gara Akerbeltz taldeko kide, eta ez dugu alboratu, baina dantzan egin bako erromeriarik ez dago; hortaz, geldi gaude, oraingoz", azaldu du Vazquezek. Hala, konfinamendu sasoian abesti batzuk sortu zituen eta entseguetara itzultzerakoan gainerako taldekideei aurkeztu zizkien: "Abestiak erakutsi eta taldea sortu zen". Hamaika abesti jaso dituzte lehen diskoan: "Laboaren bertsio bat ere sartu dugu, *Ihe-*



Taldeko kideak, Vazquez atzean dela, eta Calvo, eskuinean. HIPNOSIA

sa zilegi balitz, erreferentea delako Laboa. Gainerakoak geureak dira eta rock doinuak dituzte oinarri guztiek, baita ukitu elektronikoa ere". Eta abesti guztiak euskaraz sortzearen alde egin dute. Vazquezekin eta Calvorekin batera Naia Fernandezek eta Miriam Merinok osatzen dute taldea, eta borobiltzeko, Sutan taldeko Alain Gutierrez fitxatu dute abeslari.

Durango Azokan aurkezpena

Durango Azokan aurkeztu zuten diskoa: "Kontzertuarekin

gustura geratu ginen; 60ren bat lagun elkartu ziren, eta gu pozik, kontuan hartuta eguneko azken orduan izan zela".

Urte berria kontzertuekin has-teko asmoa zuten; izan ere, hilaren 8an ematekoak ziren lehenengoak, baina neurri murriztai-leen ondorioz bertan behera utzi dituzte guztiak: "Berriro ere geldi gaude. Gure itzaropena da otsailetik aurrera sortzea aukera berriak, baina inork ez daki zer gertatuko den, eta eskuak lotuta ditugu. Gu zuzenean jotzeko gogotsu gaude".

Mikel Zamorak 'crowdfunding'-a du abian bideoklipa ordaintzeko

Lehen diskoko 'Tu castillo' abestia zabaltzeko 2D animaziozko bideoa egin gura du aretxabaletarrak

M.A. ARETXABALETA

Mikel Zamora aretxabaletarra lehenengo diskoa prestatzen dabil. Iazko urrian kaleratu zuen lehen bideoklipa, *Quien me lo iba a decir*, eta orain, bigarrena egin gura du, 2D animaziozkoa, Gasteizko Tik Tak Animation enpresarekin.



Mikel Zamora. MIKEL ZAMORA

Ekarpenen truke, sariak

Tu castillo izeneko bigarren abestiarendako bideoa egiteko 3.000 euro behar ditu eta diru-bilketak kanpaina jarri du abian: "Dagoeneko erdia baino gehiago bildu dut, eta pozik nago. Lagunek eta senideek lagundu didate hasieran, eta orain, gehiagorengana iritsi gura dut". Diru ekarpenak egiteko, Verkami plataforma barruan *Mikel Zamora* bilaketa egin behar da. Otsailaren 10a izango da horretarako azken eguna, eta ekar-

penen truke sari bereziak prestatu ditu: "Diskoa, kamisetak, Areano landetxean egonaldiak deskontuekin, kontzertu akustikoak...". Bideoklipa otsail bukaerarako gertu izango dela uste du, eta horren ostean diskoa etorriko da.

Haurren pantailen erabileraren gainera hitzaldia bi zapatutan

Nola kudeatu pantailak haurrekin izenburupean bi hitzaldi antolatuta dituzte elkarlanean Arizmendi Ikastolak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Urtarrilaren 15ean egingo dute lehenengo eta 22an bigarrena, Arkupen (10:00-13:00), eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango dira. Izena alde

aurretik eman behar da, *arizmendi.eus* webgunean jarritako galdetegia beteta.

Hezkuntza eta komunikazioan doktore Amaia Arroyo Sagastak egingo ditu gidari lanak. 10 urte arteko umeen gurasoen eta hezitzaileen artean gogoeta sustatuko du, eta pantailen erabileraren gainera gakoak emango ditu. Erabaki kontzienteak hartzeari ematen dio garrantzia adituak eta umezurtz digitalak saihestu beharri. Kezkak eta zalantzak ere argituko ditu.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Danel Goikolea bertsolariak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egindako ekitaldian. JOKIN BEREZIARTUA



1980ko hamarkadan, Almeneko bertso eskolako hainbat ikaslerekin. 'ARGIA'

Xanti Iparragirre 'Txapelaundi'-ri agurra, bertsoekin egina

Urtarrilaren 2an hil zen Xanti Iparragirre, eta hilaren 4an Eskoriatzako frontoian azken agurra egin zioten. Besteak beste, Danel Goikolearen, Jon Sarasuaren eta Andoni Egañaren bertsoak eta Mikel Albisuren hitzak entzun ahal izan ziren ekitaldian

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Euskaltzalea, abertzalea, ekin-tzailea eta bertsolari zein bertsozalea izan den Xanti Iparragirre zendu zen hilaren 2an Eskoriatzan, Aingeru Guardako baserrian, 87 urterekin.

Makulua eskuan eta txapel handia buruan zuela ezagutu zuten askok Marixol Iparragirre euskal presoaren aita. Euskal Herriari lotuta eman zuen bizitza, eta Ipar Euskal Herrian ere bizi izan zen, 22 urtez, erre-fuxiatu, 2003an Eskoriatzara bueltatu zen arte. Militante eta

iheslari ohiaren gertukoek dio-te hitz gutxiko jakinduria zue-la, eta ezaguna da baita ere Leintzen, bertso-eskolaren sortzaileetako bat izateagatik, Patxi Goikolearekin eta Joanito Akizurekin batera.

Bertso-eskolen sortzaile

Almen ikastolako bertso eskola aitzindariak eman zituen hainbat bertsolariaren –Jon Sarasua, Arantzazu Loidi...– lehen bertso irakaslea izan zen. 1980ko hamarkadan indartu zen bertso-eskolen mugimenduaren

eredu izan zen. Haren ikasle izan ziren, era berean, Jon Iñaki Izarzelai, Danel Goikolea, Felix Iñurrategi, Saioa Arando, Ainhoa Agirreazaldeg... Iparraldean ere aritu zen bertso irakasle.

Azken agur hunkigarria

Aurreskua, Danel Goikolea, Jon Sarasua eta Andoni Egaña bertsolarien bertsoak, Mikel Albisu *Antza*-ren hitzak –Marixol Iparragirreraren bikotekidea–, eta, megafoniatik, Marixolek kartzelatik idatzitako eta aita-

ren heriotzak atzerrian harra-patu duen Larraitz Iparragirre Xantiren alaba gazteenaren agur-hitzak ere izan ziren entzungai. Honela zioen Marixolek: "Txori hegaldi labur batera geundela esan zenidan Zaballara hurbildu nindutenean. Zu ezin hegaldatu eta ni eraman ninduten, katez zamatuta. Gaur ez dira nire bila etorri. Ohi bezala, maite ditugunei azken agurra ematera bildutakoen artean egoteko aukera ebatsi digute. Horma hauetatik hara-tago naturan, bila nabil, zure

seinale baten bila. Zure presen-tzia gauzatuko duen zuhaitz, harkaitz edo forma baten bila. Badakit hor zaudela. Sendo, lasai eta duin, eta txapela bu-ruan". Larraitzen agur-mezua-ren amaierak, berriz, honako hau zioen: "Geografian urrun, baina gertu ezagutu zintudan eta berdin agurtu zaitut". Ho-rrekin batera, Iparragirre-Gue-netxea sendiaren bizilagun eta Eskoriatzako alkate ohi Pedro Lasagabasterrek gutun bat ida-tzi du, GOIENA aldizkari honen 11. orrian irakurgai dagoena.




Xanti Iparragirre Perurena, adarrak eta sastrakak erretzen. LARRAITZ IPARRAGIRRE



SANTI IPARRAGIRRE
XANTI IPARRAGIRREREN SEMEA

"Etxean beti izan dugu bertsoa, hori zen bere bizitza. Bestetik, Euskal Herriaren maitasunagatik, independentzia lortzeko bidean zerbait egin nahi izan zuen".



LORE DIAZ DE GEREÑU
EZKER ABERTZALEKO KIDEA

"Euskalduna eta abertzalea zen Xanti Iparragirre. Labur esanda, herritik eta herriarentzat bizi izan zen eta sakrifikatu zen gizon handia".



PATXI GOIKOLEA
BERTSO-ESKOLA SORTZAILEA

"Herriari oso-osorik entregatua izan da. Hitz gutxikoa zen bera, baina hitz gutxitan asko esaten zuena. Gu bertsozaleak ginen; bera, berriz, bertsolaria.



ARANTZAZU LOIDI
IPARRAGIRREREN IKASLEA

"Umore finekoa zen, ironiazkoa. Zaindu egiten gintuen, bertsotan egiteko eta ikasteko babesa ematen jakin zuen Goikolearekin eta Akizurekin batera".



JON SARASUA
IPARRAGIRREREN IKASLEA

"Berezia zen gaztetxoan begietan. Basajaun-gorputza, txapela buruan, eta ironia enigmatikoa. Eskola inoiz zapaldu gabea, hitz gutxiko jakinduria zuen".



Eskoriatzako udaletxeko harreragunea asteen, obrak amaituta, eta funtzionamendu berriari ekinez. IMANOL BELOKI

Zerbitzu guztiak batuta, udaletxea berriro zabalik

130.000 euro inguruko aurrekontuarekin eta lau hilabete iraun duten lanen ondoren, Eskoriatzako Udalak 2021eko abenduaren 23an ireki zituen berriro udaletxeko ateak, herritarrei zerbitzu hobea emateko berrikuntzekin osatuta

Imanol Beloki ESKORIATZA

Udaletxean arreta zerbitzua hobetzeko helburuarekin egin diren obrak bukatuta daude, eta, ondorioz, zerbitzu ororen herritarrentzako arreta udaletxean eskaintzen ari dira abenduaren 23a ezker.

Udaletxeko beheko solairua erabat berritu dute, Udaltzaingoaren bulegoa handitu eta sarreraren kokatu, udaletxera sartu eta ezker aldean, eta eraikinera sartu eta pare-parean, berri, herritarren arretarako zerbitzuak jarri dituzte, besteak beste. Bertan egin ahal izango dituzte herritarrek Udalarekin egin beharreko tramite guztiak, *leihatila bakarren* kontzeptuan lan egingo duena. Zerbitzu honen ohiko ordutegia honako hau izango da: 08:00etatik 14:30era.

Udal langileekin garatuta

Egitura-aldaketa garrantzitsuenetako bat lehen solairuko lan-eremua handitzea izan da, sarrerako sabaiaren altuera

jaitsi egin baitute. Eremu berri horretan administrariak egongo dira. Argiztapen-sistema hobetu egin dute, eta eraikinak zituen egiturazko zenbait arazo konpondu dituzte, hala nola gizarte-arretarako zerbitzu eremuari beste leiho bat eman zaio. Birmoldaketaren helburu nagusia eraikinaren sarreraren eta zenbait lan-eremutan aldaketak egitea izan da, udal langileekin batera garatu den metodologia berriaren arabera.

'H@azi' proiektua

Udaletxea eraberritzeko proiektu hau *H@zi* izenez ezagutzen da; herritarrei arreta zerbitzu integrala emateko proiektuaren azken fasea da. Ekimen honen

UDALETXEKO LAN HORIEKIN, UDALEAN TRAMITEAK EGITEKO PROZESUA ERRAZTU NAHI DUTE

jatorria herritarren beharrei arreta eraginkorragoa eta kalitatezkoagoa emateko borondatean datza, bai informazioa emateko orduan, bai izapideak egiteko orduan. Funtsean, herritarrek Udalarekin harremanak izateko eta tramiteak egiteko prozesua erraztu nahi izan da, eta, horretarako, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak bateratu nahi izan dira. Hori horrela, udaletxera momenturen batean joan ezin direnentzat eta mugitu ezin diren pertsona guztientzat, tramiteak online egiteko aukera ere egongo da, udal webgunearen bidez.

Kultura eta euskara ere bertan

Euskara, kultura eta jaien sailleko udal-langileak kultura etxeko eraikinean izan dira orain arte, baina orain, bertako zerbitzuak udaletxera lekualdatu dituzte. Ibarraundi museoko zerbitzuak, berri, dauden lekuan geratuko dira, bibliotekako zerbitzua eta kiroldegikoa bezala.



Iaz, Ibarraundi museo alboko belardian zuhaitzak landatzen. JOKIN BEREZIARTUA

2021ean jaiotako hogeita bat haurrengatik zuhaitz landaketa

Urtarrilaren 23an ospatuko da Zuhaitz Eguna, eta ekintza 12:00etan egingo dute, Ibarraundin hasita

I.B. ESKORIATZA

Urtean jaio diren haur beste zuhaitz landatzen dira urtero Eskoriatzako Zuhaitz Egunean. Egitasmo horrekin, zuhaitzek bizitzan duten garrantzia adierazi nahi da, eta *jaiotza bat, zuhaitz bat* ideari jarraituz, egitasmo polit eta gustuko bihurtu da urteen poderioz parte-hartzaileentzat.

Iaz, 21 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta Eskoriatzako Udalak familia horiei guztiei jakinaraziko die laster Zuhaitz Eguna egingo dela urtarrilaren 23an –domeka–, eta ekintzara animatzeko gonbita egingo die. Hitzordua 12:00etarako ezarri dute, Ibarraundi museon, eta bertatik abiatuta herriko txoko bat aukeratuko dute zuhaitz landaketa egiteko. Saioa Altzua Ibarraundi museoko langilea ari tuko da, urtero moduan, landaketa egingo duten gurasoei ar-

gibideak ematen, laguntzen eta zalantzak argitzen.

Zuhaitz mota, aukeratzeke

"Laster jakinaraziko diegu iaz haurra izan zuten gurasoei Zuhaitz Eguna egingo dugula, eta zuhaitz landaketara animatzeko eskatuko diegu. Pandemiak eraginda, iaz, familia osoa behar-rean, familiako kide bat edo beste soilik joateko dei egin genuen, eta aurten ere modu berean egingo dugu, pilaketak saihesteko helburuarekin. Horrekin batera, ez dugu zehaztu zein zuhaitz mota landatuko dugun; izan ere, landatze eremuaren arabera izango da hori. Baliteke *haur bat, zuhaitz bat* barik, zenbaiten artean landare bakarra landatzea... Hala ere, jakinaraziko dugu hori zuhaitz landaketa egunean", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

Udal aurrekontuaren hasierako onarpena, jendaurrean

Udalbatzak 2021eko abenduaren 20an eginiko osoko bilkura telematikoa hasierako onarpena eman zion 2022. urteko Eskoriatzako udal aurrekontuari. Aho batez onartu zuten udalbatza osatzen duten kide guztiek 5,3 milioi euroko aurrekontua, eta, lehenengo pausoa emanda, jendaurrean jarri dute orain, nahi duenak aztertu eta egoki iritzi-

tako alegazioak aurkeztu ditzan. Horretarako azkeneko eguna otsailaren 1a (martitzena) izango da, eta alegazioak Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke, eta baita modu presentzialean ere, H@ZI bulegoan, 08:00etatik 14:30era bitartean.

Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, eta, jendaurreko epea inolako erreklamaziorik gabe igarotzen bada, aurrekontu orokorra onartutzat joko da behin betiko.

Gonzalez eta Ayastuy, Euskadiko txapeldun

Zuhaitz Gonzalez Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloiko kirol zuzendaria eta Ane Ayastuy Saski Goiena Hemen Garbiketako taldeko jokalaria Euskadiko txapeldunak izan dira Balmasedan, emakumezkoen Gipuzkoako junior selekzioarekin

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Abenduaren 27an eta 28an, junior mailako emakumezkoen Euskadiko txapelketa jokatu zen Balmasedan, Nafarroaren, Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean. Gipuzkoako selekzioaren *staff*-ean, Zuhaitz Gonzalez Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloiko kirol zuzendaria izan da, entrenatzaile laguntzaile, eta berarekin batera Ane Ayastuy Saski Goiena Hemen Garbiketako taldeko jokalaria. Txapelketa irabazita, Euskadiko txapeldun dira.

Finalaurrekoan erabakita

"Sei entrenamenduko prestaketa egin genuen, Euskadiko txapelketarako aukeratutako Gipuzkoako hamabi jokalarirekin. Finalaurrekoan, Bizkaiaren aurka jokatzeko tokatu zitzaigun. Talde sendoa zen euren, beraiek ziren faboritoak, baina lan txukunak ordainsaria du. 66-68 irabazi genien, markagailuan eurak aurretik jarri eta guk partiduari buelta eman ondoren. Gero, hurrengo egunean, finala Arabaren aurka jokatu genuen, eta hamar puntuko aldearekin (73-63) irabazi genuen", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Eskoriatzako saskibaloia saileko zuzendariak, eta, kasu honetan,



Zuhaitz Gonzalez eta Ane Ayastuy, kopa eskuetan dutela. ESKORIATZA KE

Gipuzkoako junior mailako *staff*-eko kideak.

Ane Ayastuyren lan bikaina

Saski Goiena Hemen Garbiketako taldeko Ane Ayastuy aretxabaleterra ere Gipuzkoako taldean aritu zen Gonzalezekin batera, eta lan bikaina egin zuela nabarmendu du: "Bagenekien Anek lan bikaina egingo zuela. Partiduetan beti laguntzen duen jokalaria da, eta, batez ere, finalaurrekoan, emaitzari buelta ematen hasi ginen momentuan minutu bikainak izan zituen".

Senior taldea txukun

Euskadiko txapelketako lorpena albo batera utziz, Arrasateko Ointxe!-k eta Eskoriatza Kirol Elkartek sortutako Saski Goiena Hemen Garbiketako taldearen gidaritzarekin oso gustura ari dela azpimarratu du Zuhaitz Gonzalezek. "Sailkapenean laugarren postuan gaude, eta, urtea amaitu genuen modu berean, maila bera ematen jarraitu nahi dugu. Talde oso gaztea da, baina oso ondo jokatzen ari dira. Urratsak egitea da helburua, poliki-poliki...".

Buztingintzara bueltan

Gabonetako oporraldiaren ostean, bueltan dira Buztinate buztingintza eta zeramika elkarteko kideak Zubiaren. Ikastaroei eguaztenean berrekin zieten ikasleek, eta aurrera begirako lanak pentsatzeko, prestatzeko, ideia berriak mahai gainean jartzeko eta horiekin hasteko zenbait lagun batu ziren Alvaro Garcia irakaslearekin.



OLATZ PAGALDAY

LEINTZ GATZAGA 23



Plastiko beltzez batutako belar-bolak. IMANOL BELOKI

Plastiko bilketaren egutegia udal webgunean argitaratu dute

Mankomunitatearen zerbitzua jasotzeko, aurrez deitu egin beharko dute gatzagarrek, 943 76 25 47 zenbakira

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Baserri inguruetan sortutako plastiko bilketa zerbitzua eman du Debagoieneko Mankomunitateak. Hala ere, apirilean, ekainean eta abuztuan ez da bilketa egunik izango.

Bete beharreko baldintzak

Plastiko bilketa egiteko ohiko urteko egutegiaren berri eman du Leintz Gatzagako Udalak. Batuko den plastiko mota honako hau izango da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko, belar-boletan erabiltzen den plastiko, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko eta berotegiak estaltzeko plastiko. Horrekin batera, soka eta sareak plastikotik berezitatea zaku batean ondo bilduta atera beharko dira. Plastikoa txukun ez badago puntu horretan ez dela bilketa egingo jakinarazi dute.

Plastikoa ateratzeko egunak honako hauek dira: urtarrilak 25, otsailak 22, martxoak 22, maiatzak 24, uztailak 26, irailak 27, urriak 25, azaroak 22 eta abenduak 27. Plastikoa arratsalde finkatutako lekuetan utzi beharko dira. Hala ere, beste nonbait utzi nahi bada, aurretik deitu beharko da, telefono zenbaki honetara: 943 76 25 47.

Gatzagan, eskaripekoa

Plastiko bilketa leku finkoak Aretxabaletan, Antzuolan, Oñatin eta Bergaran daude; hala ere, noizbehinka plastiko batzeko aukera dute bailarako gainontzeko herriek, eta Gatzagaren kasuan, eskatu egin behar da zerbitzua. Bilketarako puntu nagusia Dorleta Santutegiko bidegurutzea izan arren, aurrez derrigorrez deitu beharko da telefonoz, lekua aukeratzeko eta eguna zehazteko.

Arlabango lanak hasita, errei bat irekiko dute laster

Trafiko Zuzendaritzak gogorazi du Arlabango mendateak, GI-627 errepideak, itxita jarraitzen duela. Abenduan izan ziren euriteek mendateko errepide zati batean pitzadura handiak eragin zituzten, eta ezinezkoa dute ibilgailuek bertatik pasatzea. Hori horrela, Aingeru Guardako biribilgunean eta Gure Ametsa jatetxe alboan seinaleak

daude jarrita, errepideak itxita jarraitzen duela gogorarazteko.

Hala ere, errepidea konpontzeko lanak hasita daude, eta egun gutxiren buruan errei bat irekiko dute 15 tonatik beherako ibilgailuek bertatik pasa daitezen: "Mendiari eusteko horma ezarriko da asfaltoa hondoratuta dagoen eremuan, eta, lanek lau hilabeteko epea duten arren, errei bat irekiko da laster. Milioi eta erdi euroko aurrekontua bideratu da lanak egiteko", adierazi du Aldundiak.



Lehen faseko lanek Zubietako kaleko zubiko zebra-bidetik lgartua bizikleta dendaren hasierarainoko tartea hartuko dute. J. OLABARRIA

Aspaldiko obrarik handiena, ate joka

Zubietako eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko lanak urtarilaren 17an hasiko dira. Agintaldiko eta aspaldiko obrarik handiena da, 2.350.000 euroko aurrekontua duena; lanen "nahitazko" kalteak arintzen saiatzeko neurriak iragarri ditu Udalak

Jokin Bereziartua BERGARA

Dena dago prest agintaldi honetako hirigintza obra esanguratsuen abiatzeko. Izan ere, Zubietako eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko prestaketa lanekin aritu dira asteon, eta datorren astelehenean, hilak 17, hasiko dira makinak lanean Zubietako kaleko 5. ataritik –zubiko zebra-bidea– 36. atarirainoko tartean –Igartua bizikleta denda–. Urte eta erdi beharko dira lanak gauzatzeko, eta hiru fasetan egingo dira. Fase bakoitzak sei hilabete irautea aurreikusten da.

Proiektu osoaren aurrekontua 2.350.000 euro ingurukoa da, eta hiru urteko udal aurrekontua baldintzatuko du; Zubieder enpresari adjudikatu zitzaion obraren exekuzioa, eta obraren zuzendaritza, berriaz, Typsa enpresaren ardura izango da. Gorka

Artola alkatearen arabera, "Udalaren aspaldiko hirigintza inbertsiorik handienetakoa" izango da: "Obra oso garrantzitsua da, duen kostuagatik eta herrirako ardatz handienetakoa bat den kalea berrituko delako".

Informazioa, "modu jarraituan"

Astelehenean auzotarrekin egingo dako azken bileran udal ordezkariak azpimarratu zuten, obra garrantzitsua bezain handia da, eta herritarren egunerokoa eragina izango du, "ezinbestean". Kalte horiek ahalik eta gehien murrizteko, auzota-

ren ekarpenak aintzat hartu dira, eta obrak iraun artean Udalak konpromisoa hartu du informazioa "modu jarraituan" emateko.

Obraren eragina ahalik eta gehien arintzeko, askotariko neurriak aurreikusi dituzte. Zaratari dagokionez, legezkotzat egon dadin, jarraipena egingo da. Lanak aste barruan eta ordutegi zehatzetan egitea aurreikusten da, baina, astebururen baten edo gauez emergentziaren batengatik lan egin behar balitz, herritarrei jakinaraziko litzaieke. Gainera, fatxaden altxaera ere egin nahi du Udalak, obren eraginak neurtuta izateko, eta, horregatik, une honetan inork bere eraikinean pitzadurarik edo detektatuta badu, Udalari jakinarazteko eskatu dute, jarraipena egin dezaten. Era berean, autoa obraren itxitura punturai-

UDALETXEKO BULEGO TEKNIKOAZ GAIN (943 77 91 38), BESTE BULEGO BAT JARRIKO DUTE MASTERREKAN

Zubietako kaleko lanen bi faseak

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

baserritarrek aurrez izango dute bisitaren berri. "Baserritarrek dira harreragileak. Eskatuko zaie zertxoren bat. Tragoxka bat nahikoa. Mokadutxo txiki-txiki bat laguntzeko balego ere... Porru sorta bat ere nahikoa da. Dagoena da nahikoa", azaltzen da erakusketan. Juan Antonio Urbeltzen teoriatik tiraka: "Herritarrek zomorro jantziko dira otsailaren eta baserritarren dikan jasoko dutenaren truke udan ez dute zomorro izango baserritarrek ortuan. Kokorik ez udan koko-eskekoak ondo tratatuz gero".

TELEGRAM TALDEA SORTU DUTE INFORMAZIOA ZABALTZEKO; IZENA EMAN DAITEKE

Saria, Naiara Cordobarendako

Beheko kaleko jaietako jai batzordeak Gabonetarako antolatutako zozketak badu irabazlea. Hilaren 7an egin zuten zozketa, eta zenbaki saritua 50 izan da. Gutxira agertu zen irabazlea; Naiara Cordoba, hain zuzen ere. Biharamunean jaso zuen saria, Aitor Errarteren laguntzarekin. Benetan ere, bete-beteta joan zen autoa!



BEHEKO KALEKO JAI BATZORDEA

OHARRAK

Ozkarbi elkartean urteko batzarra bihar

Pandemia dela-eta, azkenean, Espaloia kafe antzokian izango da. Lehenengo deialdia 18:45ean da eta bigarrena 19:00etan.

Erretiratuendako podologo kontsulta

Urtarrileko kontsulta astelehenean, hilak 17, izango da. Txanda hartzeko, deitu 667 80 70 06 telefonora (Olga Fernandez).

Kantsatzeke mendi taldea

Bazkide egiteko zein federatzeko aukera izango da urtarrileko martitzenetan kultura etxeko bigarren solairuan, 19:00etatik 20:00etara. Eskaerak online egiteko aukera ere bada aurten. Bete beharreko formularioa taldearen Facebook profilean dago.

Gazteluak izango dira aurtengo saioen ardatz

Hitzaldiez gain, erakusketa bat ere egongo da, Nafarroako Erresumaren historia nolakoa izan den kontatzen duena, mapek lagunduta, eta bisita gidatu bereziak lotu dituzte herriko DBH-4ko ikasleendako. Herritarrendako ere egingo dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Aurreko bi urteetan, Nafarroako Erresumaren konkisten mugarriei buruzko hitzaldiak egin zituen Nabarraldeko Oñatiko taldeak, eta erresuma horren gazteluak izango dira aurtengo jardunaldien ardatz. "258 zenbaturik dituzte. Euskal Herritik kanpo ikusten dira gazteluak, baina hemengoak gutxi daude zutik; Olitekoa, bat aipatzearen. Oñatitik gertu zegoenetako bat, esaterako, Atxorrotzekoa, Eskoriatzan, suntsituta dago erabat. Iñaki Sagredok, adibidez, 20 urtetik gora daramatza hemengo gazteluei buruzko informazioa topatzen artxiboetan. Droneak erabilia airetik ere irudi asko hartu ditu. Bera izango da aurtengo jardunaldietako hizlarietako bat", aurreratu du saioak antolatzen ibili den Iñaki Idigoras oñatiarrak.

Paradigmen azalpena

Datozen bi asteetan egongo den bigarren hitzaldia Angel Rekaldek eta Luis Maria Martinez Garatek eskainiko dute. "Errealitate bat dago eta hori interpretatzeko mapak dira paradigmak, modu batera esateko. Forala, bizkaitarra eta nafarra egon dira, eta azken horrek puzzlea osatzeko zuloak bete ditu. Hori izango da bi hizlari hauen gaia".

Aurtengo jardunaldietan, baina, ikasleendako propio izango diren bisita gidatuak antolatu dituzte. Izan ere, datorren astelehenetik hileko azken egunera arte, erakusketa bat egongo da zabalik kultura etxean, eta aurtengo, herritarrendako bisita irekiak ez ezik, DBH-4ko ikasleendako ere egingo dituzte. Herriko hiru ikastetxeekin harremanetan jarri dira antolatzaileak, eta dagoeneko lotuta dituzte bisita horiek. "Lur eremu batean sortzen diren herria, kultura, erakundeak... jasotzen ditu erakusketak. Horren eboluzioa nolakoa



Indusketa lanak egiten Atxorrotzeko gazteluan 2015ean. GOIENA

izan den urteetan. Mendez mende historia nolakoa izan den azalduko du Nabarraldeko Beñi Agirrek, mapek lagunduta".

Nabarralde proiektua sostengatzen duten hainbat oñatiar elkartu eta sostengu ekonomi-

ko horren truke etxean jasotzen duten historia lanketa eta asintze hori herritarrei ere zabaltzea pentsatu zuten. Horrela, antzerako jardunaldiak antolatzen hasi ziren. Hirugarrena da aurtengoa.

Jardunaldien egitaraua

Bi hitzaldi eta ikasleendako zein herritarrendako bisita gidatuak.

URTARRILAK 17 - 31

- **18:00 - 20:00** *Habitat. Ezkutatu diguten historia* erakusketa. Gizakiak jokatu duen historia kontatzen da, XIX. mendera arte. Kultura etxeko erakusketa gelan.
- **Herritarrendakok bisita gidatuak.** Urtarrilaren 17an eta 31n, Beñi Agirrek erakusketa azaltzeko bisita gidatu bereziak egingo ditu, 18:30ean.

URTARRILAK 21

- **19:00** *Paradigma nafarra. Euskaldunon estatua* hitzaldia egingo dute Angel Rekaldek eta Luis Maria Martinez Garatek. Zinema aretoan.

URTARRILAK 28

- **19:00** *Navarra. Castillos que defendieron el Reino* hitzaldia egingo du Iñaki Sagredok. Zinema aretoan.

Egokitutako bisitak eta ate irekiak herriko ikastetxeetan

Astelehenean zabalduko da datorren ikasturteko matrikulazio kanpaina, eta herriko ikastetxeek COVID-19ak ekarritako egungo egoerara moldatu dituzte bisitak eta ate irekien jardunaldiak. Txantxiku ikastolan atzo, egue-na, eta gaur egingo dituzte bisita gidatuak eta elkarrizketak gurasoekin, aurrez hitzordua adostuta. Elkar Hezin eta Urgan-Errekalden ere bisita pertsonalizatuak egiteko aukera dute gurasoek, eta ate irekiak zapatuan. Jende pilaketarik ez gertatzeko, ikastetxera aurrez deitu eta eman behar da izena.

2020. urtean jaioetako 71 neska-mutiko daude errolatuta Oñatin.

Sexualitatea ulertzeko eta ezagutzeko tailerra

Jabetze Eskolaren eskutik, sexualitatea ulertzeko eta ezagutzeko tailerra egingo dute datorren astean. Ikastaro honekin barneko hausnarketak sustatu nahi dituzte, eta, horretarako, emakumeak nola dauden eta nola egon nahi duten eztabai-datuko dute, zainketa emozionalak, sexualek eta mentalek, bai pertsonalki, bai kolektiboki, duten garrantzia azpimarratuta.

Iraide Gulin Garciak gidatuko du ikastaroa, eta urtarrilaren 21ean -17:30etik 20:00etara- eta 22an -10:00etatik 13:30era- izango da, Euskaldun Berria gelan.

Joateko interesa izanez gero, aurretik eman behar da izena, udal webgunean.

Udanakoa konpondu bitartean, Herribusa doan beharra dutenek

Udana mendatea konpontzeko lanak hastear dituzte, baina errepidea itxita dago oraindik zirkulaziorako, abenduan euri-teek sortutako pitzadurengatik. Zabaldu bitartean, DG04 Arrasate-Oñati-Zumarraga autobus linea postetxe parean bakarrik geratuko da, baina Herribusa hartu ahal izango du behar duenak, doan.

OHARRAK

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, da urteko lehen odol ateratzea. Aurrez hartu beharko da ordua odola emateko: 943 00 78 84.

Aloña Mendiko loteria

Aloña tabernan kobratu ahal izango dira Aloña Mendik saldutako loteriaren txartelak hilaren 14an, 21ean eta 28an. Jokatutakoa da saria.

GORA ETA BEHERA



Hanka sartu eta min hartzeko arriskua

Etzaluzeko *parke gorrian* dagoen iturriari ateratako argazkia bidali du irakurle batek. Dio behean egindako zuloa handia dela eta arriskua ekar dezakeela: "Umeak hanka sartu eta susto ederra hartu dugu". Konpontzeko eskaera ere egin gura dio Udalari.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



'COVID agiria', kiroldegiko bajen arrazoien artean

Zubikoa kiroldegi berrituarekin batera etorri dira tasa berriak, eta, oraindik bazkide kopuruaren aldea jakiteko goizegi den arren, altak ere egon direla dio Udaleko Kirol teknikariak. Bajen arteko arrazoi nagusia 'COVID ziurtagiria' izan dela dio

Oihana Elortza OÑATI

Zubikoa kiroldegiaren berritzearekin batera, bazkideak tasak egokitu eta hobariak zehaztu ditu Udalak. Orain artekoarekin konparatuz, abonamenduak garestiagoak dira, eta horrek kexa asko sortu ditu herritarren artean. Oskar Carrascal Udaleko Kirol teknikariaren esanetan, jende asko joan da "informazioa eskatzera eta konparaketa horiek ulertzera". Dio baja batzuk egon direla, baina baita altak ere. Baja eman duten gehienek, ordea, horren zergatia COVID ziurtagiria erakutsi beharra arrazoi-tu dute, Carrascalaren esanetan. "Baina dekretuz dago hori ho-



Zubikoa kiroldegiaren harrera gunea. GOIENA

rrela ezarrita, eta eskatu beharra dugu guk".

Kiroldegian informazioa

Bajen eta alten arteko diferentzia jakiteko goiz dela adierazi du Carrascalek, oraindik ere jendea informazio bila ari delako joaten kiroldegira. "Egia da familia-abonamenduetan igoera nabaritu dutela askok, baina planteamendua, estruktura, beste bat da orain. Bizikidetza-unitatea da kontuan hartzen dena, hobariak ere sarrera horiei lotuta daude, adibidez, eta dagoeneko asko etorri dira abonamendua beraien beharretara egokitzera. Hainbat bizikidetza-unitatek zailtasunak izan ditzakete prezio berak ordaintzeko, baina asmoa da kiroldegia denek erabiltzeko tokia izatea, eta horregatik egokitu da hobarien taula hori. Egun hauetan tramitatu ditugu batzuk". Hobariei dagokienez, berdinak izango dituzte, udalbatzak horrela erabakita, guraso bakarrek zein familia ugariak. Carrascalek gaineratu du edozein zalan-tza izanez gero kiroldegira joan eta bertan emango diotela informazioa herritarrari.

Punk-rock eta hardcore doinuak zapatuan gaztelekuan

Iruñean sortutako The Guilty Brigade laukoteak eta Arrasateko Libertad Condicional taldeak joko dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:00etan. Punk-rock eta hardcore doinuak eskainiko dituzte, indar handia erakutsiz taula gainean. Sarre-ra sei euro da eta Txokolateixan eta udal webgunean sartuta har daitezke aurretik.

Lau eskutara joko dute organo kontzertua parrokian

Duetto Organisticum izeneko kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, 20:00etan, San Migel parrokian. Lau eskutara joko dute Loreto F. Imaz eta Itziar Urbieta Beobide organistek. Joko dituzten piezen egileen artean: Wolfgang Amadeus Mozart, Henri Herz, Xaver Scharwenka, Gioachino Rossini eta Edvard Grieg.

Etorri, ikusi!

Urtarrilak

15

Ateak zabalik

Urgain
ESKOLA

Hitzordua aukeratzeko:

Urgain eskuorria:

Bideoak:

Matrikulazioa: urtarrilaren 17tik 28ra

"Sekulakoa da atleta onenen artean lehiatzea"

MIKEL RUIZ ATLETA

10 urterekin atletismoan hasitako bidea hartu du berriro Ruizek, eta, domekan Elgoibarko krosean helburua bete ez bazuen ere, ilusioz begiratzen dio etorkizunari

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Joan den asteburuan, Elgoibarko Juan Muguerza Nazioarteko Krosa jokatu zen, eta baita masterreko pista estaliko Euskadiko txapelketa ere. Marisol Ramos oñatiarrak Euskadiko txapelketa irabazi zuen 3.000 metroko proban, M60 mailan. Eta Juan Muguerza memorialean parte hartu zuten Aloña Mendiko Xabier Luis Urzelaik, Martin Uriartek, Anastasio Gomezek eta Mikel Ruizek. Azken horrek ezin izan zuen bere helburua bete, baina lasterketara ilusio bereziz joan zen.

Nola joan zen zuretzako domekako Elgoibarko krosa?

Goi mailako atletak etortzen dira, eta eurekin lehiatzea sekulakoa da. Justu COVID-19a pasa dut abenduan, eta horren ondorioz ezin izan naiz nire sasoi onenean joan. Nire helburua zen lehenengoak ez doblatzea; izan ere, Elgoibarkoan lehenengoak harrapatzen zaituenean, erretiratu egin behar duzu. Karrera bukatu ahal izatea zen asmoa, eta uste dut sasoi onean joan izan banintz hori egiteko gai izango nintzela, baina oraingoan ez dut lortu. Zortzigarren kilometroan harrapatu ninduten.

Zerk bultzatuta berrekin diozu atletismoari?

10 urte nituenetik 18ra bitartean atletismoan ibili nintzen. Gero, herri lasterketak egiten ibili izan naiz: Arrasate-Oñati, Behobia-Donostia eta horrelakoak. Triatlloi batzuk ere bai. Atletismoarako gogoia neukan, eta, egia esan, berriro gogoz hartu nuen pandemian. Izan ere, lasterketak bertan behera gelditu ziren eta irten zen aukera bat pista lehiatzeko; hainbat neurriekin, lasterketak seinaka egiten ziren, karrera egin eta irten egiten zinen... Protokolo batekin, egin zitekeen. Eta serio hori hasi nintzen berriro atletismoan; krosetan eta pistean.



Mikel Ruiz atleta, domekan Elgoibarren izan zen proban. KARLOS BALEZENA

"GARRANTZITSUA DA HERRIAN BERTAN PISTA BAT EGITEA, UMEEN ATLETISMO ESKOLA SORTZEKO"

zuten berriro atletismoan; krosetan eta pistean.

Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Oso ona, oso oroitzapen politak etorri zaizkit. Gainera, nire aita Placido zen atletismoko entrenatzailea umeak ginenean, eta orain berriz da bera entrenatzaile; hala, berak ere bazeukan sarrera nirekin pistara joateko, eta biok batera ibili gara, berriro aita-semeak denborak hartzen, entrenamenduak egiten... Sekulako esperientzia da.

Nola entrenatzen zara?

Arrasateko pistara joaten naiz astean behin. Bestela, hemen, herrian, ahal den moduan moldatzen gara; Otadui zuhaiztian egiten ditugu serieak, adibidez. Edota baita Mondragon Unibertsitateko fakultate kanpoaldean ere. Orain, gainera, ematen du Udala nahiko serio dabilela

Urrutxun proiekturen bat egiteko. Izan ere, egia da Arrasaten, adibidez, ikusten dudala atletismoan ume pila bat dabiltzala, pistak berak erakarri egiten duelako, eta, horrez gain, altuera-jauziak egiteko aukera daukate, esprintak egiteko, hesiak ere badituzte... Eta Oñatin umeak atletismoan desanimatu egiten dira, ez delako erakargarria. Garrantzitsua da guretzako entrenatzeko, baina, gehienbat, eskola egiteko da inportantea.

Azkenengo Behobia-Donostian, Debagoieneko bigarren gizonezko azkarrena izan zinen.

Urtero gustatzen zait egitea, eta, adinarekin, karrera luze horiek etortzen zaizkit hobeto, eta sekulako lasterketa irten zitzaidan: ordubete eta hamar minutu egitea lortu nuen.

Zein helburu dituzu etorkizunerako?

Idiazabalgo krosera joango naiz hilaren 30ean, erritmoa hartzera. Otsailaren 6an Donostiako Uliako 10 KM Gimnastikara joateko gogoz nago, ea denbora ona egiten dudana eta sailkatu naitekeen Euskadikarako. Tartean, pista estalira gerturatzea ere gustatuko litzaidake.

Esperientzia handiko musikari oñatiarrak Keia talde berrian

Ane Arruti zarautztarrak gidatuta, Egoitz Olalde, Iñigo Ibarrondok eta Iker Martinez de Zuazok osatzen dute

A. T. OÑATI

Lehenengo aurrerapen kanta argitaratu zuen martitzenean Keia talde sortu berriak. *Ez zara zu* izena darama eta bideo eta guzti publikatu dute Youtuben. 2021eko apirilean sortu zuten taldea, distantzian; izan ere, bakoitza bere etxean lantzen hasi zen Ane Arruti musikari zarautztarrak aspalditik idatzita zeuzkan kantuak, eta ekainean hasi ziren lokalean elkartu eta entseguak egiten.

Arrutik gidatuta eta bere kantuak oinarri hartuta, hirukote

oñatiar sendoaren babesa dauka ondoan, Latzen, Potemkin, Sharon Stoner, Sorkun, Zingira, Lenao eta Amonal taldeetan aritutako musikariak baititu lagun. Egoitz Olalde baterian, Iñigo Ibarrondo baxuan eta Iker Martinez de Zuazo gitarran.

Diskoa Beran, Atala estudioan, Iñigo Irazokirekin grabatu dute, modu analogikoan. Arrutik azpimarratu du horrek soinu aldetik "berezi" egiten dituela kantuak, eta otsail hasieran argitaratuko dute hamar abestiz osatuta egongo den lehen diskoa.

Aldageletako edukiera erdira jaitsi dute Zubikoan

Abenduaren 28an indarrean jarri zuten dekretuari jarraituz, Zubikoako aldageletan egon daitekeen jende kopurua erdira jaitsi behar izan dute.

Gainera, urte berrirako ordutegi aldaketa batzuk egin zituzten haur eta nagusien ur ekin-tzetako jardueretan, baina kiroldegitik adierazi nahi izan dute abendura bitartean zeuz-

katen ordutegiekin jarraitu beharko dutela aurrerantzean ere, gaur egun martxan dauden baldintzek jarraitzen duten bitartean, behintzat.

Beraz, jakinarazi nahi izan dute erabiltzaile batzuk agenda kontuengatik baja eman behar izan zituztela aurretik joaten ziren ekintza horietan, eta, hemendik aurrera ere orain arteko ordutegiekin jarraitu beharko dutenez, aukera izango dutela ekintza horietan berriro izena emateko interesa dutenak.



IMANOL SORIANO

Tenis txapelketako finalak

Benjaminak, alebinak eta infantilak aritu dira Gabonetako tenis txapelketako finalak jokatzen Zubikoa kiroldegiko tenis pista estalian. 9 eta 14 urte bitarteko 24 gaztetxok hartu dute parte, eta, mailaka banatuta, Mauro Gorostiaga, Liher Legorburu eta Manex Urdanpilleta izan dira saridunak. Ane Buquete izan da neska parte-hartzaile bakarra.

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak



"Urte ona egin izanak ez nau presionatzen"

AIMAR MADINA ALOÑA MENDIKO ZIKLISTA

Ez da ohikoa kategoria berrian debuta egiten den urtean Euskadiko txapeldun izatea. Eta, are gutxiago, errepidean lortutako titulua ziklo-krolean berrestea

Xabier Urzelai ARRASATE

Bizikleta gainean 2021a urte borobila izan da Aimar Madinarendako. Koronabirusak nahi baino gehiago baldintzatu zuen kadete mailako azken urtea, eta kategoria berrian, junior mailan, ahalik eta gehien ikasteko asmoz hasi zuen denboraldia. Konturatu orduko, baina, tropelaren aurrealdean hasi zen azaltzen, uztailan Zumaian Euskadiko Txapelketa irabazi zuen arte. Bost hilabete geroago, Aiaran, titulu bera poltsikoratu zuen, baina lokatz artean. Espainiako ziklo-kros txapelketa jokatu bihamunean izan zen *Harmailatik* saioan.

Zer moduz Xativan jokaturako Espainiako ziklo-kros txapelketan?

Ez nuen nahi moduko lasterketa egin -23. sailkatu zen-. Ibilbidea nahiko ongi egokitzen zen nire ezaugarrietara, zirkuitu azkarra zen, baina ez nuen irteera ona egin, txarto sartu nintzen lehenengo bihurtunera, eta ondoren, nire aurrean zihoan ziklista bat lurrera erori zen. Dezente atzeratu ninduen horrek, eta halako zirkuituetan aurrekoek segituan egiten dute aurrera. Ez zegoen atzetik aurrera egiteko moduko zati gogorrik. Kilometro asko pilatu ditut errepidean eta sasoi ona dut; ho-



Aimar Madina, astelehenean, Goiena telebistako platoan. X.U.

rrenbestez, zuzen lokaztuetan atzetik aurrera egiteko aukera izango nukeen, baina ez zegoen halakorik. Hamar edo hamabost onenen artean ibiltzea zen asmoa, baina ez dut lortu.

Nahiko kritikatu izan da zirkuitua. Valentzian nekez izango dute lokatza, baina...

Bai, baina, esaterako, Tarancoren (Cuenca) ere jokatu izan dut ziklo-kros lasterketa, eta han ere zirkuitu antzerakoa zen, sikua, baina beste zailtasun tekniko batzuk zituen, bazituen malda gehiago, albo bateko mal-

dak... Zirkuitu jostagarriagoa zen, teknikoagoa eta ikusgarriagoa. Akaso, hori falta zitzaion Xativakoari.

Urteari errepasoa eginda, ezustekoa eman duzu junior mailako lehenengo urtekoa izanda...

Urte ikasteko asmoarekin hasi nuen, kategoria berrira lehenbailehen egokitze helburuarekin. Hasieran ez nintzen baxter nabarmendu, baina sasoi puntua hartzen joan nintzen eta Zarauzko lasterketan eman nuen lehenengo aurrerapausoa; lasterketa gogorra izan zen ibilbi-

deari dagokionez, eta zortzigarren sailkatu nintzen. Ondoren, bi astez jarraian bigarren sailkatu nintzen, -horietako bat etxean, Arantzazun-, eta, azkenean, Zumaian iritsi zen garaipena, lasterketarik garrantzitsuenean. **laz horren ondo ibili izanak presionatu egiten zaitu aurtengo denboraldira begira?**

Ez, ez dut halako presiorik sentitzen. Egia da urtebete nagusiago izanda berez hobeto ibili beharko nukeela, baina iazko mailari eustea da nahi dudana, horretan saiatuko naiz. Azken baten, iazko sasoiari eusten badiot eta errepidean ikasi dudana gehitzen badiot, aurreko urteko mailari eutsi diezaioket. Baina ez dut presiorik; izan ere, iaz nabarmendu ez ziren ziklistek pauso bat eman dezakete aurrera, maila oso oneko ziklista gazteak etor daitezke. Halakoak ikusi ditut lehenago ere. Poliki-poliki gure bidea egiten joango gara.

Gainontzekoek gertuago zainduko zaituzte aurtun.

Hori ere egia da, bai.

Diozu esperientzia pilatu duzula errepidean. Esaterako, identifikatuta dituzu urte hasieran egindako akatsak?

Bueno, ondoren hasten zara pentsatzen ea ihesaldi saiakera hark zentzua izan zuen, beste lasterketa hartan ondo jokatu ote nuen... Nire osabak esaten duen moduan, ihesaldi saiakera guztietan sartuta ikusten da zein den ona, eta hori egia da. Batzuetan, lasterketa aurretik nahiko garbi egoten da ze lekutan egongo diren ihesaldi erabakigarriak, ze leku den klabea... Baina hori egon behar da gero.

Eta lasterketa irakurtzen jakitea ez dela erraza pultsua topera doanean.

Hori da, baina tropelaren asmoak zeintzuk diren aurrez ikustea garrantzitsua da, lasterketa jokatzen den lekuaren arabera txirindulari ezberdinek ze asmo izan dezaketen... Halakoak ere garrantzitsuak izaten dira, ikasketa prozesua da.

Duela zortzi-hamar urte Bergaran izan zen loraldi polita, herriko hainbat ziklista iritsi ziren maila gorenera. Orain, Aloña Mendin lan txukuna egiten diharduzue.

Hori daude Casais, Erostarbe, Unai Cueva ere oso maila politetan dabil... Horiek infantil mailatik daude elkarrekin eta afizionatu mailan lan oso txukuna egiten dabilta. Entrenatu eta entrenatu, urteetako lanaren emaitza da.

Dagoeneko 2022an sartu gara, eta martxo inguruan lasterketak hasiko dituzue osterarekin. Zertan eragiten dizu ziklo-kros denboraldia egin izanak?

Egia da aurtun errepideko denboraldia luzea egin zaidala, amaierara arte lehiatu naizelako, baina ziklo-kros denboraldia suabe hasi nuen, eta beste batzuek baino geroago hartu nuen sasoi puntua. Horrek lagundu dit ziklo-kros denboraldi amaierara indarrez iristeko. Bestela, errepideko denboraldia amaitzen dugunetik osterarekin lasterketak hasten ditugunera arte denbora asko pasatzen da, eta jendeak ziklo-krosa baliatzen du txispa hartzeko, indarra lantzeko... Nik, bereziki, lehian hasteko baliatzen dut.

"XATIVAKO ZIRKUITUA EGOKIA ZEN NIRETAKO, BAINA EZ NUEN LASTERKETA ONA EGIN"

Lehiaketak, oraingo, hilaren 28ra arte bertan behera

ESKOLA KIROLA Sustatzaileek penaz hartu dute foru aldundien erabakia, baina ez ditu ezustean harrapatu

X.U. ARRASATE

Ikasturteari gogoz ekin zioten eskola kiroleko partaideek, pandemia hasi zenetik lehenengoz izan zuten eta aukera zapatueta lehiaketetara itzultzeko. Joan den urtarilaren 7an, ordea, foru

aldundiek aho batez adostu zuten lehia horiek berriz etetea; urtarilaren 28ra arte, gutxienez. Erabaki horren harira, eskola kiroleko sustatzaileek adierazi dute ez dutela ezustekorik hartu. "Gabon aurretik positiboek gora

egin zuten, eta aurreikusten genuen halako erabaki bat hartuko zutela. Lanean jarraitzen dugu eta aste barruko saioetan jarri dugu indarra. Gazteen garapen eta beharrei begira, baina, aste-buruko saioak bertan behera uztea ez da berri ona", adierazi du Julen Aranbarrik.

Hala, COVID-19aren kutsatzeak saihesteko neurriak hartu dituzte entrenamenduetan, eta ikastetxe bakoitzak ezarritako protokoloak kontuan hartzen dituzte.



Aste barruko eskola kiroleko saio bat, Iturripen. HASIER LARREA

Igoera fasera batzuk, mailari eustera besteak

ESKUBALOIA Multzoko lider geratu eta gero, Fagor Profesional taldeak Ereintzaren kontra estreinatuko du igoera fasea, bihar; Mugarri Ingouk, berriz, bestelako erronka izango du, kategoriari eusteko buru-belarri ibiliko da bihartik aurrera

Xabier Urzelai ARRASATE Euskadiko Txapelketan diharduten Fagor Profesional eta Mugarri Ingou taldeek amaitu dute lehenengo fasea, eta helburu ezberdinekin hasiko dute fase berria. Arrasatekoek seiko multzotik bosgarren amaitu dute, eta mailari eusteko borrokan jardungo dute bihartik aurrera. Hor, azken bi postuetan ez egoteko lehiatuko dira arrasatearrak, horiek maila galduko dute eta. Baina adi, goiko kategorian, maila nazionalean, gertatzen denak eragin zuzena izan dezake-eta euren multzoan. Hau da, maila nazionalean talde euskaldunak badira jaisten direnak, horrek eragina izango du arrasatearren multzoan, eta zaildu egingo du mailari eustea.

Urduliz jaitsieran postuetan dago, eta Egia eta Barakaldo ere gertu. Hori ez da ona; beraz, euren lana ondo egitearekin batera, begi bat kategoria horretan izango dute jarrita. Ane Herreroen eta Patxi Garcíaren taldeak zapatuan jokatu du fase berriko lehenengo partidua, Usurbilen, 19:30ean.

Oñatiarrak, bestelako egoeran Fagor Profesionalen egoera bestelakoa da. Atzeratutako azken partiduan Urdulizi 24-21 iraba-



Eric Ugarte, Galdakaoren kontrako partiduan. GOIENA

FAGOR PROFESIONALEK ETXEAN HASIKO DU, BIHAR, IGOERA FASEA, EREINTZAREN KONTRA

zita, txantxikuek multzoko lider amaitu dute, eta, horrela, igoera faserako sailkatu dira. Fase berrian hamar norgehiagoka jokatu dituzte, eta Basauri, Zarautz, Elgoibar, Legazpi eta Ereintza taldeak izango dituzte

aurrean. "Urteko helburu nagusia bete dugu, mailari eutsi diogu, eta hemendik aurrera fase oso polita daukagu aurretik. Kategoriako talde indartsuenen kontra jokatu dugu, eta, talde gaztea dugun arren, batek daki, akaso, aurrean egoteko kapaz izan gaitezke", adierazi dio GOIENARI Kepa Urzelai atezainak. Eta fase berrian ere etxeokoei harmailetak bultzada sumatuko dute. Zapatuan, Mikel Agirrerren mutilek Ereintzaren kontra jokatu dute, Zubikoan (18:00).

Construcciones Ugartekoak, larri

laz, Espainiako Txapelketa jokatu zuten Oñatiko neskek Vigon, baina aurtengo egoera bestelakoa da. Oñatiarrei lau partidua falta zaizkie lehenengo fasea amaitzeko, eta Euskadiko Txapelketan azkenak dira. Azken-aurrekoaren kantxan jokatu dute zapatuan, Berangon (19:30). Txantxikuek ere gogor egin beharko dute lan mailari eusteko.



Oñatikoak Aialaren kontrako partiduan, artxiboko argazki batean. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	EMAK. BIGARREN M.
O.ERREGION. GIZ.	MAILA NAZIONALA	MU-Aletico
Allerru-Aretxabaleta	Durango-Eskoriatza	Dom. 16:15. Iturripe.
Zap. 16:00. Lezo.	Zap. 19:30. Landako.	GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.
Urola-Bergara	EUSKADIKO TXAPELKE.	Bergara Sor.-Astigarraga
Zap. 16:00. Argixao.	Goierri-Aretxabaleta	Zap. 20:00. Labegaraiaeta.
Hernani-Aloña Mendi	Zap. 18:00. Urretxu.	GIP. SENIOR. GIZ.
Zap. 16:00. Zubipe.	GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.	Bergara Sor.-Inter.
Mondra-Añorga	Martutene-Mondrate	Zap. 12:00. Labegaraiaeta.
Zap. 16:30. Mojategi.	Zap. 15:30. Gaska.	GIP. SENIOR. EMAK
O. ERREGION. EMAK.	GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.	Saski Goiena-Soraluce B.
Bergara-Amaikak Bat	Eskoriatza-Tolosala	Dom. 18:00. M.Muñoz.
Zap. 15:30. Ipintza.	Gaur. 22:30. M.Muñoz.	PILOTA
Mariño-Leintz Arizmendi	ESKUBALOIA	Oñati.
Dom. 17:30. Irun.	EUSKADIKO TXAP. GIZ.	Egubakoitza. 18:30ean
GORENGO MAILA	Fagor Profes.-Ereintza	senior mailako bi partidua.
Antzuola-Ikasberri	Zap. 18:00. Zubikoa.	Zapatua, 16:00etan
Zap. 16:00. Eztala.	Usurbil-Mugarri Ingou	hasita zazpi partidua.
Mondra-Urki	Zap. 19:30. Usurbil.	Aretxabaleta.
Zap. 18:30. Mojategi.	EUSK. TXAP. EMAK	Egubakoitza. 19:00.
Aretxabaleta-Ilintxa	Berango-Cons. Ugarte	Kadete eta gazte mailako
Dom. 16:30. Ibarra.	Zap. 19:30. Berango.	bi partidua.
OHOREZKO GAZTEAK	GIPUZKOAKO TXAP.	Bergara.
Ilintxa-Aloña Mendi	Soraluce BKE-Aritzba.	Egubakoitza. 19:00.
Zap. 16:00. Bikuña.	Zap. 16:00. Labegarai.	Alebin eta infantil mailako
Bergara-Amaikak Bat	SASKIBALOIA	hiru partidua. Domeka,
Domeka. 17:15. Ipintza.	EBA	12:00etan senior mailako
Mondra-Lagun Onak	MU-Ulacia	partidua bat.
Domeka. 18:00. Mojategi.	Dom. 18:30. Iturripe.	



FUNDACION EUSKADI

Calpen, urtea prestatzen

TXIRRINDULARITZA Euskaltel Euskadiko Mikel Aristi eta Julen Irizar eta Laboral Kutxako Olatz Gabilondo, Xubane Garai –irudian biak– eta Garazi Estebez Calpen (Valentzia) egon dira egunotan, 2022ko denboraldia prestatzen. Entrenamendu saio zorrotzak izan dituzte ziklista debagoiendarrek, eta egutegiak zehazten joateko eta taldekideekin egoteko baliatu dituzte egunok.

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Euskal kultura lehen lerroan jartzeko helburuarekin abiatu zuen, orain dela urtebete, Udalbiltzak –Euskal Herri osoko hainbat udalerrik osatzen duten partzuergoa– *Geuretik sortuak* ekimena. 26 artista aukeratu zituzten Euskal Herriko beste horrenbeste herritan edo eskualdetan –proiektu batzuk hainbat herrien arteko elkarlanak izan dira– sormen-egonaldiak egiteko.

Askotariko diziplinetako lanak sortu dira ekimenaren babesean, eta baita Debagoienean ere. Antzuolako, Elgetako eta Bergarako udalek eta herritarrek bat egin dute eta Oier Zuñiga iruindarraren *Eresia* ikuskizuna sortzen lagundu, eta Zuberoako Bonbon beltz konpainiaren *Harri minak* lanean murgildu dira Oñatiko Udala eta herritarrek. Proiektu horiez gain, badira Debagoienarekin lotura duten gehiago: Mireia Gabilondo bergararrak Kepa Errastik eta Telmo Iruretak idatzi duten *Sexberdinak* antzezlanazuzendu du Arrigorriagan; Metrokoadroka Sormen laborategiarekin ekoizpen lanetan jardun du Josu Zubia oñatiarrak *Bidaide* ikuskizunean Atarrabian, eta Donostian bizi den Leire Egaña oñatiarrak *Erlojupekoa* film laburra egin du Galdakaon.

'Eresia' Seminarixoa bihar

Bergarako Seminarixoa eskainiko dute bihar, zapatua, 20:00etan; otsailaren 5ean, Antzuolan; eta hurrengo egunean, Elgetan. Oier Zuñigak zuzendu du eta Eneko Gil dantzaria eta Belen Cruz aktorea ditu taularen gainean lagun. "Elkarrekin lan egin bakoak ginen, baina ederto moldatu gara. Nirekin oreka bat bila-



Seminarixoa bihar estreinatuko duten *Eresia* pieza artistikoaren egile Belen Cruz, Eneko Gil eta Oier Zuñiga. OIER ZUÑIGA

Udalbiltzaren kultura-pilulak

Oier Zuñigaren 'Eresia' antzezlanaz, Bonbon Beltzen 'Harri minak', Tanttakaren 'Sexberdinak', Metrokoadroka Sormen Laborategiaren 'Bidaide' eta Leire Egañaren 'Erlojupekoa' film laburra, Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimeneko fruituen artean

tu nahian jo nuen eurengana, intuizio nahiko inpulsihoa izan zen; izan ere, argi ikusten nuen piezak hitzetik asko duela, baina baduela, era berean, kantutik, gorputzetik eta dantzatik ere, eta horregatik proposatu nien elka-

rrekin sortzea, bakoitzak bere ekarpena egin ahal ziolako", dio Oier Zuñigak.

Dolua du oinarri ikuskizunak. Amaren heriotzaren ondorioz sortutakoa dela azaldu du Zuñigak: "Orain dela lau urte abiatu

nintzen arrangura horrekin, eta, harrezkero, hainbat praktika artistiko garatu ditut doluaren inguruan, gai hori kolektibizatze eta nolabaiteko dolu erri kolektibo, komunitario edo publikoa egiteko beharra ikus-

ten nuelako. Gero, egiazki, pieza bera omenaldi bat da, oro har, ama guztiei, eta hildako senide guztiei ere bai, ez bakarrik nire gertukoei. Ikusleak kontatzen ditugunekin identifikatutako direla uste dugu".

Antzokietan eskaintzeko "pieza eszenikoa" dela dio Zuñigak: "Hala definitzea gustatzen zait niri; izan ere, antzerkitik oso gertu dago, performancetik ere badu, gertakizun bat delako. Ez dugu publiko batengan zehazki pentsatu; egia da ez dela haur-antzerki bat, baina ez nuke esango haurrak ikuskizun honetatik kanpo geratzen direnik, heriotza presente dagoelako guztiongan; hortaz, publiko zabalarentzako egindako 65 minutuko pieza da".

Hiru herritan elkarlanean

Egonaldietan oinarritutako sorkuntza prozesua izatea proposatu zuten Udalbiltzakoek. "Proiektuarekin lehenagotik hasi ginen, baina egonaldiak irailean abiatu genituen, Elgetan, azaroan Antzuolan izan ginen eta urtarrilean egin dugu azkenekoa Elgetan. Oso eskuzabalak izan dira gurekin bat egin duten udal ordezkariak zein herritarrek, eta agerian geratu da, nire ustez, doluaren gaia jendartean tratatu beharra dagoela. Elgetan eta Antzuolan doluari buruzko bizipenak jasotzeko bilkurak egin ditugu herritarrekin, eta Bergaran, DAP plataformarekin elkarlanean, antzerki tailer bat egin genuen, antzerkitik gaia nola landu dugun partekatzeke".

Hiru herriekin koordinatzea ez dela lan erraza dio ekimeneko komunikazio arduradun Lide Hernandok, jasotako harrera txalotuta. "Bergarako, Antzuolako eta Elgetako teknikarien eta zinegotzien engaiamenduari esker

MC ONAK

GOIENA TELEBISTA, KOOLTUR OSTEGUNAK
URTARRILAREN 14AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Bost laburrekin, film luzea laster

Antzezlanek gain, zinema ekoizpenak ere sustatu ditu Udalbiltzaren ekimenak, eta udaberrian film luze bat aurkeztuko dutela esan du ekimeneko komunikazio arduradun Lide Hernandok: "Bost film laburrak jaso ditugu, eta orain, guztiak batuta, *Bost teillatu* film kolektiboa lantzen ari dira Adabaki ekoiztetxeak".

'Erlojupekoa' film laburra
Donostian bizi den Leire Egaña oñatiarrak zuzendu duen *Erlojupekoa* da film horietako bat; Bira Produktzioak-ekin elkarlanean egin du. "Enkargu bat entregatu behar duen *rider* baten pausoak jarraitzen dituen komedia surrealista egin dugu. Astronauta-uniformea jantzita, jaietan dagoen herrian, *rider*-a galdu egingo da, eta, bideo-joko batean egongo balitz bezala, protagonistak bidean aurkitzen dituen oztupoak saihestu beharko ditu, denbora eta energia bukatu baino lehen. Prekarietatea kritikatzeko duen



Erlojupekoa film laburra grabatzen Galdakaon. LEIRE EGAÑA

maitasun eta esfortzu handiz egindako film labur bitxia egin dugu, eta publikoarekin partekatzeak irrikaz gaude", kontatu du Egaña.

Egonaldia Galdakaon
"Oso herri atseginarekin egin dugu topo", dio Egaña, Galdakaon egin duten hiru asteko egonaldi-artistikoari buruz galdetuta. "Herriarrak proiektuan sartzera bultzatzeko, hiru ekimen nagusi egin ditugu: herriko istorioak eta herriarrak

ezagutzeko asmoz gidoi-laborategi bat egin genuen, hasteko, eta bertatik irten ziren ideia batzuk filmean sartu ditugu; aktoreak, figuranteak eta ekoizpen laguntzaileak aukeratzeko *casting*-a egin genuen gero, eta 70 pertsona inguru hurbildu ziren. Eta hirugarren ekimena filma errodatzea izan zen; bost egunetan egin genuen Galdakaoko hainbat gunetan. Oso eskertua nago prozesuan parte hartu duten guztiekin".

askoz errazago bilakatu da. Oso garrantzitsua zen guretzat udal-erriek proiektuan sinestea eta konprometitzea, eta hori zinez ikusi dugu hiru herrietan". Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak eta Elgetako Kultura eta Euskara zinegotzi Ane Bilbao Larrañagak jardun dute "anfitrioi" lanetan, eta, oraindik *Eresia* ikusteko aukerarik izan ez duten arren, "pozik" daude. Honela dio Kortabarriak: "Lan erraza izan da: harrera egin, lantokia erakutsi, jatorduak egiteko tokien berri eman, lo-lekura eraman eta herriar batzuekin harremanetan jartzea. Euskara, nazio-ikuspegi-proiektua, kulturgintzan eragitea, sorkuntzan laguntzea, elkarlanean... gure izaerarekin bat datozen ezaugarriak dira. Hori guztia kontuan izanik, eta Udalbiltzako kide moduan, Antzuola ezin zen horrelako proiektu batetik kanpo geratu". Eta honako hau dio Bilbao: "Horiek izan dira nire eginbeharrak ere, baina aparteko ardurarik ez dut izan. Proiektuaren berri izan aurretik, sorkuntza arloan zein aukera genituen aztertzen genbiltzan; hortaz, zalantzarik ez

genuen izan bat egiteko. Kultura, euskara, sorkuntza, herria.... Denak elkartzen dituen proiektu eder bat da".

Oñatin, Bonbon Beltz

Otsailaren 25ean estreinatuko dute Zuberoako *Harri minak* Oñatin. Anfitrioi lanean jardun duen Kultura zinegotzi Iñaki Olalderen esanetan, "taldekoekin egindako harremana oso kuriozoso" izaten ari da. "Elkarriketa luzeak izan dituzte herriarrek kon-takizuna osatzeko, eta egonaldi bat egin dute zinema eta Santa

'GEURETIK SORTUAK' EKIMENEAN PARTE HARTU DUTEN SORTZAILEAK ETA UDALAK, "POZIK"

2023AN ETA 2024AN EGINGO DUTE BERRIRO ERE; UDAN EGINGO DUTE PARTE HARTZEKO DEIALDIA

Ana aretoan. Oñatiarrok biluztuko gaituzten sentsazioa daukat, ispilu bati begira egotea moduan izan daiteke, eta, sarri, horren beharra dugu".

Tantakakoak ere "pozik"

Garun-paralisia duen kazetariak eta kontraesanean erdi itota dabilen haren lagun gozoki saltzailearen arteko istorioa dakar Tantakak umorezko *Sexberdinak* lanean; Arrigorriagan estreinatuko dute, urtarrilaren 21ean. "Gure eskura jarri dute eskutako guztia. Emanaldietarako toki berriak bilatu ditugu; ahal dela, behintzat, antzokietatik kanpo eskaini nahi dugu. Izan ere, eszenografia berezia da, aulki gorpildunetan egongo da publikoa eserita", dio Mireia Gabilondo aktore eta zuzendariak.

Ekoizle paperean "gustura"

Gaur estreinatuko dute, Atarrabian, Josu Zubia kide den *Bidaide* antzezlan. "Kulturgile anonimoak da gaia eta Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Idoia Hernandez *Hatxe* daude taularen gainean. Asko ari naiz ikasten".

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

'Komunikazio ez bortitza' liburua

Parte hartzeko sariaren izena: komunikazio



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATZARAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Otarrea Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen (LPE/15/1999) legearen arabera, jakingarria dugu, zuzen datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilaka horien helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gaitortzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, hasi zuzentzeko edo ezabatzea, helbide horietara datuak, irabazteko goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

"Narziso" antzerkiarako sarrerak ditugu
Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilak 22 | 18:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Narziso" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen (LPE/15/1999) legearen arabera, jakingarria dugu, zuzen datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilaka horien helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gaitortzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, hasi zuzentzeko edo ezabatzea, helbide horietara datuak, irabazteko goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 18

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. Errentan hartu

Arrasate. Ama, alaba eta seme batek osatutako familia gara eta etxebizitza behar dugu errentan. Lan kontratua daukat eta arduratsuak gara eta orain arteko errenta eta abarren ordainagiriak aurkez ditzakegu. Bi katu ere badauzkagu, garbi-garbiak. 651 89 59 16

Bergara. Etxebizitza bila nabil Bergaran. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 72 92 87

Bergara. Neska bergarra naiz eta etxebizitza behar dut errentan. Pre-sazkoa da. 690 75 61 18

2. GARAJEAK

203. Errentan eman

Arrasate. Garaje itxia, 19,50 metro koadrokoa, ematen da errentan Zarugalde kalean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639 15 69 04

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibar-garai kalean. Auto txiki, bizikleta edo motor batendako egokia. Merke. 679 74 00 61

4. LANA

402. Eskera

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska arduratsua orduka zaintza eta garbiketa lanetan aritzeko gertu. Telefonoa: 632 91 23 61

Arrasate edo inguruak. Mutil arduratsua lanerako gertu. Esperientzia daukat margotzen, eraikuntzan zein basolanetan. Telefonoa: 611 51 22 30

Arrasate eta inguruak. Orduka zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Legezko agiriak daukat eta zoziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 693 66 68 03

Arrasate. 15 urteko esperientzia duen emakumea zaintza lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota gauean ere bai. Legezko agiriak eta zoziosanitario

titulazioarekin. Telefonoa: 680 87 38 66

Bergara. Esperientziadun emakume pertsona nagusiak zaintzeko prest orduka edo txandakako (bat bai beste bat ez) gauean. 666 07 42 98

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 612 56 12 39

Debagoiena. Emakume bat nagusiak zaintzeko gertu, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 643 29 75 77

Debagoiena. Emakumea zaintza lanak egiteko gertu. Egunean zehar, baita orduka ere. Legezko agiriak eta zoziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 622 29 98 90

Debagoiena. Emakumezkoa prest mota ezberdinetako lanak egiteko: umeak eta pertsona helduak zaindu edota garbiketa lanak. 641 60 18 20

Debagoiena. Emakumezkoa prest mota ezberdinetako lanak egiteko: umeak eta pertsona helduak zaindu, garbiketa lanak edota zerbitzari lanak. 642 37 01 92

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko edota etxe, atari, lantegi eta abarrak garbitzeko gertu. Baita zerbitzari lanetarako ere. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Autoarekin. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentzia onak dauzkan emakumea orduka, egunez zein gauez, lan egiteko gertu. Zaintzarako titulazioa daukat. 661 48 86 74 (Sabina)

Debagoiena. Gizonezkoa prest mota ezberdinetako lanak egiteko: umeak eta pertsona helduak zaindu, garbiketak edota zerbitzari lanak. Deitu 641 60 12 04 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu lan desberdinak egiteko: garbiketa, zaintza eta abar. 645 72 92 87

ARRASATE

Kortaberri harategia salgai, erretiroagatik. 688 61 32 06

BERGARA

Aldizkari banatzaileak behar dira. Interesatuok: 688 69 00 07 edo harpidetza@goiena.eus

BERGARA

Turismo gidari eta harrera lanak egiteko pertsona bat behar da. Euskara maila handia beharrezkoa eta ingelesa eta frantsesa jakitea baloratuok da. Bidali curriculum: geurerri@gmail.com

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak egiteko, egunean zehar. Zoziosanitario titulazioa daukat. Esperientzia ospitalean eta etxean. Baita base-riak ere. Autoa daukat. Berehala hasteko gertu. 634 69 29 62

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. 632 19 08 26

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo atari eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo beste-l. 682 40 53 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen esperientzia duen emakumea lanerako gertu. Baita orduka ere. Zoziosanitario titulua-rekin. Ordutegi arazorik ez. 691 28 53 25

Debagoiena. Neska arduratsua orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziarekin eta legezko agiriarekin lan bila, garbiketan, zaintzan eta abar. Orduka, ospitalean gauak egiten zein asteburuetan. Telefonoa: 677 14 64 29

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziarekin, garbiketan, zaintzan eta abarrean lan bila.

Orduka, ospitalean gauak egiten zein asteburuetan. 677 14 64 27

Debagoiena. Orduka pertsona nagusien zaintzan jarduteko prest nago, egunez zein gauez. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Ostalari-tzan, sukaldari eta zerbitzari moduan, esperientzia handikoa eta jendaurreko lanetan aritzea gustuko duen ofatiarra naiz. Arduratsua eta langilea. Telefonoak: 658 38 87 93 edo 658 71 77 88

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 631 79 81 56

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Kotxea daukat. 6 Interesatuok deitu zerbaki honetara 63 94 82 80

Debagoiena. Zoziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 659 90 85 13

Debagoiena. Zerbitzari, bodegero, banatzaile, garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Telefonoa: 642 36 70 42

Etxeko lanak eta garbiketak. Kaixo! Etxeko lanetan edo garbiketan lana bilatzen ari naiz. Forma-

kuntza eta lan eskarmen-tua daukat. Pertsona arduratsua eta konprometitua naiz. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 643 98 30 47

7. ANIMALIAK

703. Eman

Artzain txakurrak. Artzain txakur arrazako kumeak oparitzen dira. Oso politak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665 71 40 34

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 72 69 10

8. DENETARIK

801. Saldu

Motor elektrikoa duen gupril-aulkia. Brexi Premium markako gupril-aulkia eta motor elektrikoa, biak berriak eta erabili gabe. Bergara. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 658 74 91 78 edo 629 43 27 19

ESKER ONA



Josefina Aguirre Arechaga

Joaquin Ceciagaren alarguna

2022ko urtarrilaren 1ean hil zen, 88 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Juan Igartua Biain

2021eko abenduaren 25ean hil zen.



Eskerrik asko doluminak eman eta hiletara etorritako guztioi. Ondra meza urtarilaren 15ean, 19:30ean, izango da Agustindarren elizan.

Elorduiko baserri lanetan beti fiña ta jarduna Pertsona mouan paregabia horreatik zaittugu hain kuttuna Oso zaila izango da betetia

zuk ibittako hutsuna Zerua bea be txiki geratu da ikustian zure handitasuna. Betirako gure bihotzetan Betirako bidelaguna.

Elorduiko senidiak. Oñatin, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA



Pedro Aguirre Goitia

'Peitto'

2021eko abenduaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2022ko urtarrilaren 14an.

URTEURRENA

Mertxe Aguirrezabal Lamarain

Jose Mari Arejolaleibaren alarguna

2021eko urtarrilaren 9an hil zen, 87 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 15ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko urtarrilaren 14an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ESKER ONA

Maria Dolores Unamuno Mugica



2021eko abenduaren 26an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan gurekin egon zareten guztioi eta zaintzaileei. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Zaindu izan zinttugun, ahal bezain ondo, maite, ahal bezain beste.
Joan zara. Emendatu da zure kandela.
Baina gu hemen gara.
Eta zuk lagatako argia, hori ez, hori ez da inoiz emendatuko.

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Juan Manuel Gonzalez Arroitia



2021eko abenduaren 25ean hil zen, 75 urte zituela.

Haren emaztea: Mari Carmen Lopez. Semeak: Juan Manuel (†), Sergio.
Anai-arrebak: Mari Carmen eta Jon Etxebarria (†).
Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.
Jasotako maitasun keinuak eta doluminak bihotzez eskertzen dizkizuite eta Juan Manuelen oroimenez egingo den hileta-elizkizuna aurrerago egingo dela jakinarazten dizuite.

Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Iñaki Korta Zabalo



2021eko abenduaren 23an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Julia Guridi Aiastui



2021eko abenduaren 27an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Xabat Etxebarriarteun Agirrebeña



2021eko abenduaren 23an hil zen, 17 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan-Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Consuelo Galartza Ostiza



2021eko abenduaren 24an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Felix Zugasti Ribera



Jaione lankidearen aita

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Pausokako familia.
Aretxabaletan, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Mila Arenaza Gabilondo



2022ko urtarrilaren 10ean hil zen, 68 urte zituela.

Gure besarkada beroena familiari.

Jonen lagunak.
Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Mila Arenaza Gabilondo



2022ko urtarrilaren 10ean hil zen, 68 urte zituela.

Bihotz haundikoa
beti laguntzeko prest emakumea.
Maite zaitugu.

Zure loibak.
Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 14an.

URTEURRENA

Antonia Alberdi Ariznabarreta



Jose Mari Agirrebengoaren alarguna
2021eko urtarrilaren 16an hil zen, 94 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 15ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2022ko urtarrilaren 14an.

URTEURRENA

Nieves Olalde Arrieta



Ramon Ambroy Aranzabalen alarguna
2021eko urtarrilaren 3an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

URTEURRENA

Jose Agustin Aranzabal Askasibar



'Gaztelu'
2020ko abenduaren 30ean hil zen, 74 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
Aita, bizitza maitatzen irakatsi diguzu,
baikorra, alaia, lagunkoia, sentikorra eta maitakorra izanez,
guretzat eredu zara eta beti zaude gurekin.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA



Mikel Ugalde Ugarte
2022ko urtarrilaren 6an hil zen.



*Aita, laguna, lankidea, bikotea
bihotz haundiegia, hautsi.
Familiari, lagunei, herriari
gogor heldu, eutsi.
Lagunen lagun, etsaien etsai
sekula ez, etsi
haundia zinen, haundia zara
betirarte, Mikel, betiko 'Nausi'.*

Izarretan elkartuko gara.

Zure lagunak.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Mikel Ugalde Ugarte



2022ko urtarrilaren 6an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Miguel Altunako langileak eta ikasleak.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA



Mikel Ugalde Ugarte



*Azkarregi joan zara, Mikel!
Mila esker eman diguzun guztirengatik.
Adiorik ez, gero arte baizik.*



Bergarako Arcelor Mittaleko LAB
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Mikel Ugalde Ugarte



2022ko urtarrilaren 6an hil zen.

*Zer gutxi eskatu
Eta zenbat eman diguzun
Zuk utzitako hutsuneak
Zure oroitzapen alaiekin beteko ditugu.
Bihotzean izango zaitugu lankide...
Betirako lagun.*

Altos Hornos Bergara-ko lankideak.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA



Mikel Ugalde Ugarte



2022ko urtarrilaren 6an hil zen.

*Zure oroitzapenak iparra
Gure biharko irriparra.*

Maia eta Ekainen lagunak.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Mikel Ugalde Ugarte



2022ko urtarrilaren 6an hil zen.

*Gurera momentu egokienean heldu zinen,
zure alaitasun ta eskuzabaltasunak gure biziak argituz.
Azkarregi joan arren zure bizipoza gure bihotzean geldituko da.
Uzten dizkiguzun bi altxorren begietan biziko zarelako,
agurrik ez Mikel.*

Ezkurra familia.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Anabel Iria Ugarte



2022ko urtarrilaren 4an hil zen, 59 urte zituela.

*Zein azkar joan zaren hainbeste behar zaitugun lekutik
Zein zaila onartzea zu gabe jarraitzea
Beti izango zaitugu gogoan
Anabel, eskerrik asko eman diguzun guztiengatik.*

Ugarte familiakoak.
Arrasaten (Garagartza), 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Anabel Iria Ugarte



2022ko urtarrilaren 4an hil zen, 59 urte zituela.

*Bihotzean daramagu
bidean eman diguzuna.
Adiorik ez, Anabel.*

Garagartzako lagunak.
Arrasaten (Garagartza), 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA

Anabel Iria Ugarte



2022ko urtarrilaren 4an hil zen, 59 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Iturraldeko senideak.
Arrasaten (Garagartza), 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Anabel Iria Ugarte



2022ko urtarrilaren 4an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
eta gurekin egon zareten guztioi.

—

*Hitzik ez, dena eskertzeko
Muxu eta besarkadak motz,
Zu maitatzeko
Denbora labur, zutaz gozatzeko,
Utzitakoa bertan geratu da
Gure artean loratzeko.*

Aita, Josu, Ander, Ursuia, Hegoa eta Haitz.
Arrasaten (Garagartza), 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA



Leire Orgaz Mimbrero



1987-07-12 / 2022-01-11

*Inork ez daki borroka egiten zuk erakutsi diguzun bezala.
Beti irriz, beti alai, beti gure bihotzean.
Zure Eskoriatzako lagunok beti izango zaitugu gogoan.*

Eskoriatzako lagunak.
Eskoriatzan, 2022ko urtarrilaren 14an.

OROIGARRIA



Patxi Puertas Sebal



2022ko urtarrilaren 10ean hil zen, 57 urte zituela.

*Bidai on, Patxi
Lurrak goxo besarkatu zaitzala
Ondo joan...
beti egongo haiz ondoan,
lagunon gogoan.*

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.

ESKER ONA

Mikel Ugalde Ugarte

2022ko urtarrilaren 6an hil zen, 40 urte zituela.

Familiak eskerrak luzatu nahi dizkizue egun hauetan zuen maitasuna eta babesia eman diguzuen guztioi, zinez oso eskertuta gaude jasotako goxotasunagatik.

Bihotz alaia, bihotz handia, pertsona handiagoa.
Gure bihotzetan betirako.
Lurrak goxo har zaitzala.
Asko maite zaitugu.
Betirako, zure familia.

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.



OROIGARRIA



Mikel Ugalde Ugarte

2022ko urtarrilaren 6an hil zen.

Joan zarela diñue, Mikel... Baina ez, zu ez. Zu beti (egongo zara) gurekin...
Adio? Ez, Mikel, ez... Adiorik ez...
Bihotzean zauzkagu, Mikel.
Bihotzean, gogoan, oroimenean...
Non ez...
Mikel, joan ei zara; guk, baina, berdin-berdin ikusten, entzuten, sentitzen eta maitatzen zaitugu, berdin-berdin... (Orain, bihar eta beti...).

Elorrixoko eta Goi Argiko familixak.
Bergaran, 2022ko urtarrilaren 14an.



OROIGARRIA

Anabel Iria Ugarte

2022ko urtarrilaren 4an hil zen, 59 urte zituela.

Beste izar bat piztu da Garagartzako zeruan.
Gure bihotzean izango zaitugu betirako.

Anai-arrebak eta lobak.
Arrasaten (Garagartza), 2022ko urtarrilaren 14an.



Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.
Gure eskerrak beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.
Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



TXUTXU-MUTXUAK











1. Erakusleihu politenak
Aretxabaletako Lierena izan zen dotoreena, epaimahaiaren ustez –300 euroko bonua–. Aldiz, herritarren botoek Belar Metarena babestu zuten –150 eurokoa–.

2. 50 urte ezkontuta
Joakin Idigoras elgetarrak eta Maribel Morales antoñanarrak urtarrilaren 8an ospatu zuten, Zumelagan. "Besarkada handi bana, familiakoen partetik".

3. Urrezko ezteiak
Lourdes Uralde eta Alejandro Garcia arrasatearrek urtarrilaren 5ean bete zuten urteurrena. " Ondo-ondo pasa, Atxuriko lagun partetik!".

Kontatu, kontatu!
Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!
Posta elektronikoa
Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.
Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkaritza (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Josu Agirre
Urtarrilaren 20an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA
Axel Anduaga Cortes
Urtarrilaren 19an, 8 urte. Zorionak, preioxo! Zortzi urte jada! Ze handi ein zaren, kaiño... Patxo handi bat etxeko danon, eta bereziki, Liaren partetik.



OÑATI
Egoi Ibane Kerejeta
Urtarrilaren 19an, 7 urte. Zorionak, potxolo! Zazpi urte daueneko! Arrasateko eta Oñatiko familixa danaren partetik, jarraitu horren xalau eta umoreko.



ARRASATE
Hegoa Bergaretxe Arkauz
Urtarrilaren 18an, 3 urte. Zorionak, txiki! Jada hiru urtetxo. Jarraitu beti moduko irribarretsu. Asko maite zaitugu. Patxo bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
Aimar Merchan Garay
Urtarrilaren 18an, 9 urte. Zorionak, pirata! Patxo handi bat familiaren partetik! Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Nahia Etzaniz Gabiria
Urtarrilaren 17an, 10 urte. Zorionak, Nahia! Ondo-ondo pasatu zure 10. urtebetetzean. Asko maite zaitugu, bihotza.



BERGARA
Ane Beloki Iñarra
Urtarrilaren 15ean, 6 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo handi bat etxekoan partetik!



OÑATI
Ariz Bengoa Altuna
Urtarrilaren 14an, 2 urte. Zorionak, maitte! Egun oso ona pasatu eta muxu pila bat, familixaren partetik.



BERGARA
Sara Ezenarro Ostolaza
Urtarrilaren 14an, 9 urte. Zorionak, maitxia! Egun zoragarria pasatu eta fenomeno ospatu! Muxu handi bat etxekoan partetik!



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 9 urte. Zorionak, June! Ondo pasatu zure eguna. Asko maitxe zaitxugu. Aitatxo, amatxo, Naia eta etxeko guztiak.



BERGARA
Ibon Lete Cobo
Urtarrilaren 12an, 6 urte. Zorionak, 'bonbonzito'! Segi zaren bezelako jatorra izaten. Muxu potolo bat danon partetik.



BERGARA
Oier Mendizabal Larrañaga
Urtarrilaren 11n, 10 urte. Zorionak, Oier! Jada 10 urte! Patxo handi bat familiaren, eta bereziki, Maddiren partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Ane Gartzaron Telleria
Urtarrilaren 11n, urtebete. Zorionak, Anetxo! Jada urtebete. Patxo handi bat familia osoaren partetik eta segi daukazun alaitasun horrekin!



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 9 urte. Zorionak, maittia! Primeran pasatu eta ondo ospatu bederatziz urtetxo horreik! Mila muxu hainbeste maitte zaitugun guztion partetik!



OÑATI
Naia Letamendi Narraspe
Urtarrilaren 8an, 9 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Segi beti bezain jator eta alaia izaten. Etxekoan partetik patxo handi bat.



ANTZUOLA
Pello Gabilondo Olaortua
Urtarrilaren 7an, 10 urte. Zorionak, Pello, etxeko danon partetik. Segi horren mutil alai eta jatorra izaten. Muxu handi bat, txapel dun!



OÑATI
Ibai Arregui Ladino
Urtarrilaren 7an, urte bat. Zorionak, maittia, politt hori! Patxo asko etxekoan partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
Naia Badiola Unzurrunzaga
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Zorionak, Naia, etxeko danon partetik. Musu handi bat.



ANTZUOLA
Bidatz Elizburu Salegi
Urtarrilaren 7an, 13 urte. Zorionak, politxa! Jada 13 urte bete dituzu! Muxu asko etxekoan partetik!



BERGARA
Andrea Bella
Urtarrilaren 7an, urtebetetzea. Bergarako zure familiaren partetik, zorionak eta musu asko bidaltzen dizkizugu.



ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5ean, 10 urte. Kantu bat, bizitako guztiari, Kantu bat, aurretik dugunari! Zorionak, Garazi! Ondo-ondo pasatu! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
Nahikari eta Julene Garay
Urtarrilaren 4an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako Oñatiko etxekoan partetik, eta bereziki zuen aitatxo, asko maite zaituztelako.



ARRASATE
Izadi Zuriarrain Arcauz
Urtarrilaren 4an, 12 urte. Zorionak, printzesa. Egun oso polita pasatu. Asko maite zaitugu. Familia osoaren partetik.



DEBAGOIENA
Luna
Urtarrilaren 4an, 12 urte. Zorionak, maitti! Familia osoaren partetik disfrutatu zure eguna, bitxito. Maite zaitugu!



ARRASATE
Aurora Trenado
Urtarrilaren 3an, 39 urte. Zorionak eta urte askotarako, amatxo! Patxo handi-handi bat, familixa danaren partetik!



ARETXABALETA
Nahi Gonzalez de Garibay Aristondo
Abenduaren 31n, 6 urte. Zorionak, Nahi. Gure bizitzara heldu zinen, poza eta alaitasuna ekartzera. Maite zaitugu. Zure guraso maitteak.



BERGARA
Gema Orbeagozo
Abenduak 30, zure urtebetetzea. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta muxu handi bat guztion partetik.



ARRASATE
Enara Balantzategi Eiro
Abenduaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Enara! Oso ondo pasatu zeure egunean eta ederto ospatu. Familia osoaren partetik, muxu handi bat.



BERGARA
Iratxe Osa Zabala
Abenduaren 29an, 9 urte. Gure etxeko alxor handixa! Zorion bero bat bidaltzia nahi izan dogu aitatxo-amatxoren, Oierren, osabaren eta aiton-amonen partetik.



ARETXABALETA
Irati Guenetxea Bengoa
Abenduaren 28an, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako! Egun ona pasatu eta disfrutatu. Besarkada bat danon partetik!



ARRASATE
Jose Mari Oianguren
Abenduaren 28an, 69 urte. Zorionak, aitxaitxa! Urte askotarako! Besarkada handi bat familia osoaren, eta batez ere, Ionen, Unaxen eta Izarren partetik!



BERGARA
Maialen Zenitagoia Apraiz
Urtarrilaren 17an, 5 urte. Zorionak, politx hori. Besarkada handi bat eta patxo potolo bat familiako danon partetik.



ESKORIATZA
Amalur Carpio Azpitarte
Urtarrilaren 16an, 7 urte. Zorionak gure neskatila polittinari. Bere amama Resu, aitaita Txomin, osaba Gorka eta Ion txakurtxue.



OÑATI
Elene Gorosabel Urrutia
Urtarrilaren 15ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Segi horrelako alaia izaten. Patxo handi bat etxekuan eta, bereziki, Auritzen partetik.



OÑATI
Oier Galdos Navarro
Urtarrilaren 15ean, 5 urte. Zorionak, politx hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu erraldoiak etxekoen partetik.



ANTZUOLA
Ekain eta Gaizka Niño Fernandez
Urtarrilaren 10ean, 6 urte. Zorionak, bikote! 6 urte! Asko maite zaituztegu! Muxu asko etxekoen partetik!



ESKORIATZA
Isaak Markel Maturana Sheen
Urtarrilaren 10ean, 11 urte. Zorionak familiaren partetik!



OÑATI
Jon Agirrezabal Maiztegi
Urtarrilaren 10ean, urtebete. Zorionak, Jon! Patxo asko etxekoen partetik. Pila bat maite zaitugu. Segi holakoa izaten.



BERGARA
Xabat Ernabide Sebal
Urtarrilaren 9an, 5 urte. Zorionak, Xabatintxo! Ondo ospatu familiarekin eta laguntxuekin! Patxo handi bat danon partetik!



BERGARA
Danel Urrutia Arribillaga
Urtarrilaren 8an, 7 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian, artista. Bihotz-bihotzez maite zaittugu.



BERGARA
Hodei Otero de Paz
Urtarrilaren 6an, urtebete. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat familia osoaren partetik.



OÑATI
Ibai Zumalde Olariaga
Urtarrilaren 5ean, 4 urte. Zorionak, politt hori! Patxo handi bat familiako guztien partetik. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
Lia Anduaga Cortes
Urtarrilaren 5ean. Zorionak, printzesa! Hiru urtetxo Jada! Aix, ze handi eixten zabitzen. Patxo handi bat etxeko danon, eta bereziki, Axelen partetik. Muxutxuak.



ESKORIATZA
Irati Etxebarrieta AItuna
Urtarrilaren 5ean, 21 urte. Zorionak, neska! Ederto ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Oihan Zubiaga Ilarduia
Urtarrilaren 5ean, 14 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta tori patxo potolo bana ebekuon partetik.



OÑATI
Oxel Uribarren
Urtarrilaren 5ean, 6 urte. Zorionak, Oxel, eta urte askotarako, familia guztixaren partetik! Azkenian heldu da zure urtebetetze eguna, eh? Muxu handi bat.



ESKORIATZA
Aiza Martin Brea
Urtarrilaren 3an, 8 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat.



ARETXABALETA
Julen Zuzuarregi eta Alaitz Ortiz de Mendibil
Julenek urtarrilaren 2an eta Alaitzek urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak eta ondo-ondo ospatu zuen egunak!



BERGARA
Manex Osa Arana
Urtarrilaren 1ean, 9 urte. Familia osoaren partetik, zorionak, txikito! Jarraitu deizula gorputza mugituz eta jolas mordua einez. Danok asko maite zaitugu. Muxu handi bat. Ondo ospatu zure urtebetetzean.



OÑATI
Maddi Dorado Hernandez
Urtarrilaren 1ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Jarraitu gure bizitza alaitzen. Pila bat maite zaitugu. Familiaren partetik, muxu erraldoi bat.



ARRASATE
Jare Arrotxa Barandiaran
Abenduaren 28an, 8 urte. Zorionak, Jare! Ondo pasatu eguna eta jarraitu horrelako alaia izaten! Patxo handi bat! Familiako guztien partetik.



ARETXABALETA
Egoitz eta Izadi Zabala Cabero
Abenduaren 24an, 9 urte. Zorionak, bikote! Iritsi da azkenean zuen eguna! Oso ondo ospatu eta disfrutatu, merezi duzue-eta! Asko maite zaituztegu Haizeak, aitak, amak eta familia guztiak!



ESKORIATZA
Jon Cabello Garcia
Abenduaren 23an, 13 urte. Zorionak, txapel dun! Familiaren partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
Iker Mateos Ramos
Abenduaren 22an, 19 urte. Zorionak, Iker! Disfrutatu asko zure eguna! Muxu handi bat familiaren partetik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



MC ONAK

MC ONAK TALDEAREN EMANALDIA

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00



GOIENA

BIRKIT MUSIKARIARI ELKARRIZKETA

'Elkarriketap' Eguaztana, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 14	ZAPATUA, 15	DOMEKA, 16
08:00 Hemen da Miru 76 08:30 Elkarriketap: Haritz Arreguy 09:00 Harmailatik 09:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Harmailatik 11:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Hemen da Miru 75 13:30 Elkarriketap: Haritz Arreguy 14:00 Albisteak 14:30 Erreportajea: Respect 15:00 Albisteak 15:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 16:00 Albisteak 16:30 Urrutiajunbe: Mikel Urdangarin 17:00 Albisteak 17:30 Erreportajea: Respect 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Erreportajea: Respect 19:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Kooltur: Mc Onak 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Harmailatik	08:00 Elkarriketap: Haritz Arreguy 08:30 Hemen da Miru 76 09:00 Ahotsenea: Wood String 09:45 Kooltur: Mc Onak 10:45 Bixi ibili!: Aretxabaleta 11:15 Hemen Debagoiena 12:00 Asteko errepasoa 13:00 Erreportajea: Respect 13:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 14:00 Hemen Debagoiena 15:00 Elkarriketap: Haritz Arreguy 15:30 Kooltur: Mc Onak 16:30 Asteko errepasoa 17:30 Kontzertua: 'Amalurra' 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Musika zuzenean: 'Kantu bat gara' 20:30 Hemen Debagoiena 21:30 Ahotsenea: Wood String 22:15 Musika zuzenean: 'Kantu bat gara' 22:45 Hemen Debagoiena 23:45 Urrutiajunbe: Mikel Urdangarin	08:00 Hemen da Miru 78 08:30 Hemen da Miru 77 09:00 Hemen da Miru 75 09:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Kooltur: Mac Onak 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Elkarriketap: Haritz Arreguy 13:30 Bixi ibili!: Aretxabaleta 14:00 Ahotsenea: Wood String 14:45 Erreportajea: Respect 15:15 Elkarriketap: Haritz Arreguy 15:45 Asteko errepasoa 16:45 Hemen Debagoiena 17:30 Musika zuzenean: 'Kantu bat gara' 18:00 Erreportajea: Respect 18:30 Hemen Debagoiena 19:30 Ahotsenea: Wood String 20:15 Bixi ibili!: Aretxabaleta 20:45 Hemen Debagoiena 21:30 Elkarriketap: Haritz Arreguy 22:00 Asteko errepasoa 23:00 Bixi ibili!: Aretxabaleta

EGUBAKOITZA, 14 'PROTAGONISTA IZAN ZEN': MARISOL RAMOS

'Luzapena'

18:00/20:00/22:00

ASTELEHENA, 17 KIROL HITZORDUEN ERREPASOA

'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

ASTELEHENA, 17



GOIENA

OLARTE, FERRERIAS ETA ZURGIN KALEAK

'Izenen izana'

18:00/20:00/22:00

MARTITZENA, 18

ARANTZAZU SAGARZAZU

'Akordeak'

18:00/20:00/22:00

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 14

OÑATI Odol ateratzea

Urteko lehena. Donostiatik mezua jasotzen ez dutenek 943-00 78 84 zenbakira deitu behar dute ordua hartzeko.

Enpresagintzan, 16:30ean.

ESKORIATZA Arkatzak apaintzeko tailerra

Urteko lehena. Donostiatik mezua jasotzen ez dutenek 943-00 78 84 zenbakira deitu behar dute ordua hartzeko.

Enpresagintzan, 16:30ean.

BERGARA Bustinzale elkartekoen erakusketa

Haur bakoitzak bere arkatza eraman beharko du. Gainerako materiala, ludotekaren esku.

Ludotekan, 16:45ean.

OÑATI Duetto Organisticum bikotearen kontzertua

Loreto F. Imazek eta Itziar Urbietak Beobidek osatzen dute taldea. Besteak beste, Wolfgang Amadeus Mozarten, Henri Herzen eta Xaver Scharwenkaren piezak joko dituzte.

Parrokian, 20:00etan.

ZAPATUA 15

ARRASATE Zuhaitz Eguna

Bost mintegik askotariko landareak eta zuhaitzak eskainiko dituzte, baserritarren azokaren baitan, Seber Altube plazan. Era berean, zuhaitz landaketa egingo dute Etxezarreta parkean. 10:00etan elkartuko dira, Musakolako San Isidro elizan.

Seber Altube plazan.

ARETXABALETA 'Nola kudeatu pantailak haurrekin?' hitzaldia

Amaia Arroyo Sagastak gidatuko du eta online ere jarraitu ahal izango da. Aurrez eman behar da izena.

Arkupen eta online, 10:00etan.

ARRASATE 'Lezetxiki. Neandertalen lurraldea' erakusketa

Garagartzako koban eta inguruko zein mundu zabaleko txokoetan izandako espeziea hobeto

ezagutzeko aukera, apirilaren 9ra arte.

Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'Tupper sex' tailerra

Gaztetxoendako ekintza.

San Andresko gazte txokoan,

18:00etan.

ELGETA Ozkarbiren urteko batzarra

Lehenengo deialdia 18:45ean da eta bigarrena 19:00etan. Bazkideak parte hartzera animatu dituzte.

Espaloian.

BERGARA 'Eresia' antzezlan, helduendako

Dolua gaitzat hartuta antzerkia eta dantza fusionatzen duen ikuskizuna sortu dute Belen Cruz, Oier Zuñiga eta Eneko Gil aktoreek, Geuretik Sortuak bekari esker.

Seminarixoa, 20:00etan.

OÑATI The Guilty Brigade eta Libertad Condicional taldeak

Punk-rock eta hardcore doinuak. Sarrerak, sei eurotan, Txokolateixan eta Udalaren webgunean.

Gaztelekuan, 22:00etan.

DOMEKA 16

BERGARA 'Zaintza lanak eta ekintzailatza, emakume migratuentzat' ikastaroa

Maria Juncayren eskutik, Jabekuntza Eskolaren baitan. Izena emateko: *berdintasuna@bergara.eus* edo 943-77 91 06.

Agorrosinen, 10:00etan.

BERGARA Txistulari bandaren kontzertua

Herritar guztiendako emanaldi irekia.

Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa, aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE 'Sex education' mahai-jolasa

Gaztetxoendako.

San Andresko gazte txokoan, 18:00etan.

ARRASATE 'Lubaki lainotsua' antzezlan

Helduendako, AXT Teatroren eskutik. Javier Barandiaran, Maren Basterretxea eta Miriam K. Martxante aktoreak oholza gainean. Sarrerak, hamar euro.

Amaia antzokia, 19:30ean.

ASTELEHENA 17

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

San Martin plazan, 12:00etan.

ELGETA Podologoia, erretiratuendako

Beharrezkoa da aurrez txanda hartzea: 667 80 70 06 (Olga Fernandez).

Kultura etxean, 15:00etan.

OÑATI 'Noka, emakumeen ahalduntzerako tresna' ikastaroa

Beatriz Irizarren eskutik, Jabetza Eskolaren baitan.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

ARRASATE Kulturolara bisita gidatua

Aran Otaduyk gidatuta, 18:00etan gaztelaraz eta 19:30ean euskaraz.

Talde bakoitzean 25 pertsona.

Aurrez eman behar da izena:

Arrasate.eus atarian edo BAZen bulegoan.

Kulturolan.

OÑATI 'Habitat. Ezkutatu diguten historia' erakusketaren bisita gidatua

Ekologian ere erabiltzen den *habitat* kontzeptuarekin batera, gizakiak



ITZIAR URBIEA

OÑATI Duetto Organisticum bikotea

Loreto F. Imazek eta Itziar Urbietak musikari ezagunen piezak joko dituzte. Besteak beste, Wolfgang Amadeus Mozarten, Henri Herzenen eta Xaver Scharwenkaren lanak.

Gaur, egubakoitza, parrokian, 20:00etan.

sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertze eta ezagutzeko aukera, Nabarralde elkarteko kide Beñi Agirrerren eskutik.

Erakusketa aretoan, 18:30ean.

MARTITZENA 18

ARRASATE Kulturolara bisita gidatua

Aran Otaduyk gidatuta, 18:00etan gaztelaraz eta 19:30ean euskaraz.

Talde bakoitzean 25 pertsona.

Aurrez eman behar da izena:

Arrasate.eus atarian edo BAZen bulegoan.

Kulturolan.

OÑATI 'Aseritibitatea eta ahalduntzea' ikastaroa

Tailerrean generozko komunikazio-estiloak buruz hausnartuko dute, eta asertibitatez komunikatzeko tresna berriak erabiltzen ikasi, Pepa Bojoren eskutik. Gaur egingo dute lehen saioa.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

OÑATI 'Metabolismo sozialaren formazioa' saioa

STH taldearen eskutik.

Gaztetxean, 19:00etan.

ELGETA Bazkidetza eta mendi federazio txartelak egiteko aukera

Kantsatzekeren bulegoan tramitatu daitezke dokumentuak, urtarileko martitzenetan. Tramiteak etxetik ere egin daitezke.

Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Doluaren gaineko hitzaldia

Iñaki Peñak eta Eider Otxoak egingo dute berba.

Seminarixoa, 19:00etan.

ARRASATE 'Fantasia' dokumentala

Zahartzaroaren, familiaren eta oroimenaren gaineko gogoeta egiten du Aitor Merinok zuzendutako lanak.

Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 19

ARETXABALETA Haurren loaren gaineko hitzaldia

Nahia Alkortak egingo du berba, Kukumiku guraso elkartek gonbidatuta. Debalde, baina aurrez eman behar da izena:

kukumikuelkarte@gmail.com.

Kukumikuren egoitzan, 17:30ean.

ARRASATE Kulturolara bisita gidatua

Aran Otaduyk gidatuta, 18:00etan gaztelaraz eta 19:30ean euskaraz.

Talde bakoitzean 25 pertsona.

Aurrez eman behar da izena:

Arrasate.eus atarian edo BAZen bulegoan.

Kulturolan.

ARETXABALETA 'Petra ipurdian bost letra' ipuin kontaketa

Ixabel Agirresarobek 4 eta 8 urte arteko neska-mutikoei kontatuko dizkie ipuinak.

Liburutegian, 18:00etan.



AXT TEATRO

ARRASATE 'Lubaki lainotsua' antzezlan
Helduendako, AXT Teatroyen eskutik. Javier Barandiaran, Maren Basterretxea eta Miriam K. Martxante aktoreekin. Sarrerak, ohiko lekuetan, hamar eurotan.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

OÑATI Musika eskolari buruzko hausnarketa
Etorkizuneko zerbitzuak, proiektu pedagogikoa delako lanketa saioa egingo dute herritarrek. Hurrengoa, hilaren 28an.
Oñatin, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Naturaren leihoak' erakusketa
Landare prentsatuak, lehorrak eta naturako osagarri desberdinen konposaketak erakusten ditu Itziar Azpirozek, kolore, forma eta testura ezberdinak erabilia
Aroztegin, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Carmen Martin Gaitetik idatzitako *Entre visillos* liburuaren gaineko saioa, Ane Zapaterok gidatuta.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala
Doluari buruz, Iñaki Peñak zuzendutako lana. Debalde, edukiera bete arte.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 20
ARRASATE Sasoibide irteera
Bizi-bizi tailerra egingo dute Makatzenan.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Amaren intxaurrek' ikuskizuna
Porrotx eta Marimotots pailazoekin, emanaldi bikoitza: 17:00etan eta 18:30ean. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen.

ARRASATE 'English conversation group' saioa
Jay Mannek gidatuta.
Arkupen.

OÑATI 'Fue la mano de Dios' filma
Paolo Sorrentinoren lana, jatorrizko bertsioan. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Lukiek
2015ean Mungian sortutako rock taldearen emanaldia, aurrez iragarritako Labana taldearen ordez. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 21
ARETXABALETA 'Amaren intxaurrek' ikuskizuna
Porrotx eta Marimotots pailazoekin, emanaldi bikoitza: 17:00etan eta 18:30ean. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen.
OÑATI 'Paradigma nafarra. Euskaldunon estatua' hitzaldia
Nabarraldeko kide Anjel Rekaldek eta Luis Mari Martinez Garatek egingo dute berba.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El amor en su lugar
Zapatua eta astelehena: 19:30.
Trash (euskaraz)
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Mamá o papá
Domeka eta astelehena: 19:30.

Encanto
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La primera mision
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30 eta 22:00.
Astelehena: 19:30.

Canta 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

El contador de cartas
Zapatua eta domeka: 17:00.

100 días con la Tata
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Vuelta a casa de mi hija
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Klara y la Navidad en la granja
Zapatua eta domeka: 17:00.
El contador de cartas
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Way down
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:20.
Domeka: 20:00.
Aslehena eta martitzena: 17:30.

Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:20.

Cazafantasmas
Egubakoitza eta zapatua: 21:10.
Domeka: 12:00, 19:25.
Astelehena eta martitzena: 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:30.

El buen patron
Egubakoitzetik domekara: 17:10.
Astelehena eta martitzena: 17:30.
Eguaztena eta eguena: 20:00.

Spiderman
Egubakoitzetik domekara: 17:10.
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:05.
Domeka: 11:30, 19:15.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 19:40.
Martitzena: 17:30, 19:40.
Eguaztena eta eguena: 19:45, 20:00.

Mama o papa
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:05.
Domeka: 12:00,

17:00, 19:05.
Astelehena eta martitzena: 20:20.

West side story
Egubakoitza eta zapatua: 18:55, 21:55.
Domeka: 18:55.
Astelehena eta martitzena: 19:30.
Eguaztena eta eguena: 19:20.

Matrix
Egubakoitza eta zapatua: 21:20.
Domeka: 18:55.
Astelehena eta martitzena: 19:30.
Eguaztena eta eguena: 19:20.

Canta 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.

La primera mision
Egubakoitza eta zapatua: 21:00.
Domeka: 11:45, 19:00.
Astelehena eta martitzena: 19:30.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

Vuelta a casa de mi hija
Eguaztena eta eguena: 17:30.

El día de la bandera
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:10.
Domeka: 17:00.
Astelehena eta martitzena: 20:20.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

Lunaticos
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:10.
Astelehena eta martitzena: 17:30.
Buscando a la magica Doremi
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:55.
Domeka: 17:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.

Scream
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:50, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:50.
Astelehena eta martitzena: 20:00.

FLORIDA

Canta 2
Egubakoitza: 16:55, 19:25.
Zapatua: 12:00, 16:55, 19:25.
Domeka: 12:00, 16:55.

Spiderman
Egubakoitza: 17:00, 19:10, 22:00.
Zapatua: 11:30, 17:00, 19:10, 22:00.
Domeka: 11:30, 17:00, 19:10.
Astelehenetik eguenera: 19:20.

La primera mision
Egubakoitza: 16:55, 21:35.
Zapatua: 12:00, 16:55, 21:35.
Domeka: 12:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El contador de cartas
Egubakoitza eta zapatua: 16:55, 19:50, 22:10.
Domeka: 16:55, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

KRITIKA

West side story ★★★★★
Zuz.: Steven Spielberg. **Herr.:** AEB (2021). **Aktoreak:** Rachel Zegler, Ansel Elgort **Iraupena:** 156 minutu.

Bertsio liluragarria

ANTONIO ZABALA

Ez da gauza erraza *West Side Story*-ren bertsio berri bat egitea, Robert Wisek eta Jerome Robbinsek 1961. urtean egindakoa mitikoa baita. Jatorria antzerkia izanik, zinemako bertsioa izan da istorioari arrakasta erraldoia eman diona. Wisek eta Robbinsek maisutasunez lortu zuten antzerkitik zinemara dagoen jauzia gainditzea. Energia, bizitasuna, amodio istorioa, drama... Osagaiak bikain nahasten ziren, ikuskizun borobila burutzeko. Abesti eta dantza zoragarriak. Muntaiak erritmo perfektua ematen dio filmari. 60 urte pasa dira, eta oraingo bertsioak estreinako indarra eta magia mantentzen ditu. Spielberg errespetu osoz hurbildu da. Lan zailena Wisek eta Robbinsek egin zuten. Spielberg, horren balioa



kontuan hartuta, gaurko egunari begira, aldaketa batzuk egin ditu: Puerto Ricoko pertsonaiak aktore latinoamerikarrek egiten dituzte, eta gaztelania ingelesarekin nahasten da. 1961eko filma barnekoiagoa zen, eta Spielbergekin zabalagoa, handiagoa edo ikusgarriagoa egin gura izan du. Jatorrizkoak

iradoki egiten zuena, kasu honetan, argitu eta sakondu nahi izan da. Spielbegek lortu du. 1961eko esentzia mantentzea: erritmoa, dantzak, argia eta iluntasuna, erromantzea eta drama nahastea, eta horrekin batera, originalak sorrarazten zuen bezala, ikuslea zinematik liluratuta irtetea.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Talde portaera

Pandemiaren hasieran, adituek esan zuten talde-immunitatea lortzearekin batera bideratuko zela egoera. Ez da horrela izan.

Herriarrian izaera taldekoa, oinarritzkoa, bai geratu da agerian behin eta berriz.

-Gogoratzen duzue infekzioaren lehen asteetan armada espainiarra ibili zela lekuak behin soilik desinfektatzen? Eta zein izan zen jende askoren -taldearen- erreakzioa? "Dena beharko da". Gaur, guztiok dakigu neurri hura ez zela eraginkorra pandemiaren kontra.

-Hilabete hauetan, askok birusaren zabaltzailatzat gazteak hartu dituzte lehenengo, eta ondoren, txertoa hartu ez duten pertsonak. Omikronarekin ikusi dugu, baina, birusaren mugikortasuna beste zer baiten arabera dela -zientziarentzat oraindik ezezaguna den zer bait-.

-Planeta hobeagoaren alde dagoen gizarte honek, inoizko gizarterik aurrerakoenak, alde batera utzi du Osasunaren Mundu Erakundearen eskaria -herrialde pobreei laguntzea-, eta geureaz soilik arduratu gara.

-Irratiko iritzi-emaile bati entzun berri diot egoera honetan falta direla liderrak -eta ez gestoreak-. Horixe, ba, liderrak behar dituzte animalia zein gizaki taldeek.

GOIENA OKM GIDA

"Asko balio du egunero lanera gustura etortzeak"

MANOLI TENA SABURDI HARATEGIA

Txuleta edo hanburesak eraman, eta gazte zein adineko izan, harategiko bezeroekin gertutasuna eta konfiantzazko harremana sortzearen garrantzia azpimarratu ditu

Jone Olabarria ARRASATE

Ikasten jarraitzeko gogorik ez eta industrian lan asko zegoen arren, urdaitegian lanean hastea nahiago izan zuen Manoli Tena, duela ia 40 urte. Bere lana maite duela dio, eta, batzuetan ordu asko diren arren, "oso pozik" dago urte hauetan guztietan egindakoarekin.

Nola hasi zinen arlo honetan lanean? Familiatik datorkizu?

Azokako urdaitegi batean hasi nintzen lan egiten, 14 urte nituela. Hainbat urtez bertan ibili eta gero, hogeita bost urte nituela pausoa eman eta harategia jartzera animatu nintzen, nire kontura. Dagoeneko 27 urte daramatzat. Hasieran, Seber Altuben jarri nuen, eta duela hamaika bat urtetik hemen nago, Otalora Lizentziaduna kalean. Baina ez, ez datorkit familiatik.

Okelaz gain, ezagunak zarete jaki prestatuengatik...

Lokalez aldatzean, aprobetxatu eta prestatutako jakiak eskaintzen ere hasi nintzen, eta, egia esanda, oso pozik nago; harrera ona dute, batez ere, jaiegun edo festetarako, elkarteetan edo lagunekin jateko. Eguneroko lanak ere oso ondo funtzionatzen du. Ez dut sukalde erraldoirik, eta,



Manoli Tena, Otalora Lizentziaduna kaleko Saburdi harategian, eguaztenean. J.O.

Gehiago zaintzen dugu elikadura?

"Gaur egun, jendeak gehiago zaintzen du bere burua, eta askok ere alergiak edo arazoak izaten dituzte. Horregatik saiatzen gara produktuak gluten gabekoak, laktosa gabekoak eta ahalik eta osasuntsuenak izaten. Begano eta begetarianoendako ere eskaini behar dituzu produktuak. Baina, normalean, plantxan egiteko produktuak saltzen dira: xerra, petxuga... Ez da lehen bezala; ez dute sarritan eskatzen haragi gisatua egiteko kilo bat".

hortaz, ezin ditut horrenbeste eman.

Zer da zure lanak duen onena?

Jendearekin dudan harremana da onena; bezero finkoak dituznean, konfiantzazko harremana sortzen da. Supermerkatu handien kasuan, esaterako, ez duzu harreman estu hori sortzerik. Hemen jendearen bizi-tzaren eta egoeraren berri duzu, eta beraiek ere zure kontuak ezagutzen dituzte. Adineko pertsonekin, adibidez, asko igartzen dugu hitz egiteko behar hori.

Eta okerrera?

Okerrena ordutegiak dira; den-dako orduez gain, atzetik lan handia dago. Jakiak prestatu behar dira. Baina nik beti diot, gustura egiten baduzu, ez da horren txarra. Pozik egiten dui lan; asko balio du egunero jaiki eta lanera gustura joateak.

Gabonak igaro berritan, topera ibiliko zineten...

Egun arraroak izaten dira, lan askokoak, eta bultzada garrantzitsua da, bai, baina nik nahiago dut eguneroko martxa.

Igarri duzue alfertu egin garela eta prestatutakoa erosi?

Egun, jendeak gehiago jotzen du prestatutako plateretara. Elkarteetan edo bazkari bat antolatzerakoan, bestela, beti pertsona berberak aritzen dira otorduak prestatzen. Kuriosoa da: goizetan etxeko andreak edo adineko pertsonak etorri ohi dira, eta eramaten dutena ere klasikoagoa da. Arratsaldeetan, berriz, gazteagoak, san jakobo edo hanburesa eskean.

Goiena OKM
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
Igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZURRA JAISITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURTzea



HARRIAPATZE
EGORRAK



IGOGAILUAK
ZARATAK



365/36/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917